

ANOETAKO ZAINZA EKOSISTEMAREN DIAGNOSTIKOA

2025eko Abendua

ANOETAKO UDALA



Diruz lagundu du



Zabalduz Gizarte Ekimeneko Kooperatiba



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	1
1. SARRERA	4
1.1. Sarrera	4
1.2. Zaintza Ekosistema Lokalen markoa	5
2. MARKO TEORIKO ETA KONTZEPTUALA	6
2.1. Zaintzen ulerkera	6
2.2. Zaintzen bilakaera historikoa	7
2.3. Zaintzaren krisia eta ongizate sistemen mugak	7
2.4. Dikotomiekin hautsiz: bizitzaren iraunkortasunaren ekonomia.....	8
2.5. Zaintzen ikuspegi feminista eta intersektionala: kokapenak eta desberdintasun ardatzak.....	8
2.6. Zaintzaren eskubide kolektiboa	9
2.7. Erantzunkidetasuna eta ardura soziala: elkarlan publiko-komunitarioaren erronka..	10
2.8. Zaintza	10
3. DIAGNOSTIKOAREN HELBURUAK	12
3.1. Helburu orokorra	12
3.2. Helburu espezifikoak.....	12
4. METODOLOGIA.....	14
4.1. Ikuspegi metodologiko orokorra.....	14
4.2. Gobernantza eta prozesuaren antolaketa	15
4.3. Parte-hartzaileen laginketa eta esferen sistema	15
4.3.1. Esferen araberako taldekatzea.....	16
4.3.2. Esfera bakoitzerako inklusio-irizpideak.....	17
4.4. Tresnak eta datuen bilketa	18
4.4.1. Galdetegia	18
4.4.2. Elkarriketa erdi-egituratuak.....	19
4.4.3. Talde elkarriketak	19
4.5. Dimentsioak eta adierazleak.....	19
4.6. Aspektu etikoak eta datu-babesa	21
4.7. Datuen analisia.....	21
4.7.1. Datu kuantitatiboak.....	21

4.7.2. Datu kualitatiboak	22
4.8. Kronograma.....	22
5. PARTE-HARTZAILEEN PROFILA.....	23
5.1. Galdetegiaren parte-hartzea.....	23
5.1.1. Profil soziodemografikoa.....	23
5.1.2. Galdetegiaren profilaren laburpena.....	25
5.2. Elkarriketatuen profila (esferen sistema).....	25
5.2.1. Esferen araberako banaketa	25
5.2.2. Elkarriketatutako profilaren laburpena	27
6. EMAITZEN DESKRIBAPENA.....	28
6.1. Galdetegiaren emaitzen deskribapena	28
6.2. Elkarriketatutako testigantza nagusiak: esferen arabera	30
6.2.1. Esfera publikoaren errealitatea.....	30
6.2.2. Esfera pribatua edo zerbitzu hornitzaileen esferaren errealitatea	34
6.2.3. Esfera komunitarioaren errealitatea	37
6.2.4. Zaintzaileen esferaren errealitatea	40
6.2.5. Zainduen esferaren errealitatea.....	43
7. EMAITZEN ANALISIA	46
7.1. Zaintzaren ulkerak eta pertzepzio orokorra	46
7.1.1. Zaintzaren garrantzia gizartearentzat	46
7.1.2. Zaintzaren-beharrak eta mendekotasunaren bizipena	48
7.1.3. Zaintzaren balioa eta bizipenen gurutzaketa	50
7.2. Zaintza-politiken eta zerbitzuen irakurketa	52
7.2.1. Administrazio publikoen prestutasunaren pertzepzioa	52
7.2.2. Udalak zaintza-beharrei ematen dien erantzuna	54
7.2.3. Udal-politikek pertsonen beharrak erdigunean jartzen dituzten neurrian.....	56
7.2.4. Politiken irakurketa gurutzatua: administrazioa, Udala eta zaintza-ikuspegia	58
7.3. Komunitatearen rola eta sentsibilizazio maila	60
7.3.1. Komunitatearen prestutasuna eta herriaren auto-irudia	60
7.3.2. Zaintzarekiko sentsibilizazio-maila	61
7.3.3. Zaintza sustatzen duten jarduerak ezagutzea eta parte-hartzea.....	63
7.3.4. Komunitatearen rola eta sentsibilizazio-mailaren irakurketa gurutzatua	64
7.4. Zaintza-sarearen antolaketa eta lanketa publiko-komunitarioaren beharra	65
7.4.1. Beharrak ikuspegi publiko-komunitariotik lantzearen aldeko adostasuna.....	66

7.4.2. Zaintza Sarea: beharra eta parte-hartzeko prestutasuna	67
7.4.3. Esferen prestutasuna eta arduren banaketa: ikuspegi publiko-komunitarioaren zentzuan 68	
7.5. Esferen arteko ikuspegien aberastasuna eta alderaketa.....	71
7.5.1. Esferen arteko tentsio puntuak.....	72
7.5.2. Esferen arteko konbergentziak	73
7.6. Proposamen interesgarriak.....	74
8. ONDORIOAK.....	75
8.1. Ondorio nagusiak eta laburpen taula	75
9. ETORKIZUNeko ERRONKAK ETA JARDUERA ILDO POSIBLEAK.....	78
9.1. Etorkizuneko erronkak	78
9.2. Jarduera-ildo posibleak	79
10. BIBLIOGRAFIA.....	80
11. ERANSKINAK	82
I. Eranskina: Galdetegi itxia.....	82
II. Eranskina: Elkarriketa erdi.....	83
III. Eranskina: Galdetegiaren erantzunen laburpen taula	86
IV. Eranskina	89

1. SARRERA

1.1. Sarrera

Azken hamarkadetan, Euskal Herriko udalerrietan gertatu diren aldaketa demografiko, sozial eta ekonomikoek eragin zuzena izan dute eguneroko zaintzaren antolaketan. Bizitza-luzeraren igoerak, jaiotza-tasa baxuek, familien egitura txikituak, emakumeen lan-merkaturatzeak eta komunitate-loturen ahultze progresiboak egoera berri bat eragin dute, non herritar askok zailtasunak dituzten beren zein inguruko pertsonen zaintza-beharrek modu egokian asetzeko. Horren ondorioz, gero eta agerikoagoa da zaintza-sistemek pairatzen duten presio estrukturala, eta eredu tradizionalak ez dute gaitasunik errealitate konplexu eta anizkoitz honi behar bezala erantzuteko.

Anoeta herriak baditu bere tamainarekin eta egitura sozialarekin lotutako berezitasunak — hurbiltasuna, komunitate loturak, laguntza familiarrak —, baina azken urteetan biztanleriaren zahartze progresiboa, belaunaldien arteko laguntza-sareen eraldaketa eta auzo-loturen ahultzea gertatzen ari dira. Aldi berean, galdetegietan, elkarrizketa erdiegituratueta eta Zaintza Topaketetan jasotako ekarpenek erakusten dute herritarrek badutela zaintza-ereduaren berrikuntza kolektiboaren beharra.

Testuinguru horretan, Anoetako Udala, Zabalduz Gizarte Ekimeneko Kooperatiba eta herriko eragileek elkarlanean abian jarri dute “Anoeta, elkar zainduz” proiektua. Proiektuaren helburua da herri mailako zaintza-eredua berrikustea, gaur egungo egitura diagnostikatzea eta datozen urteetarako Zaintza Plan bat diseinatzeko oinarriak ezartzea.

Lan honek ez du soilik zerbitzuen egoera aztertzea xede; askoz zabalagoa da: helburua da zaintza antolatzeke moduak modu parte-hartzailean berrazmatzea, eragile publiko, komunitario, profesional eta familiar guztien arteko lankidetzak bultzatuz. Diagnosi honek herritarren ahotsa, datu kuantitatiboak eta ikuspegi komunitarioa uztartzen ditu — eta, horrela, Anoetako Zaintza Ekosistemaren lehen oinarri estrategikoa osatzen du.

1.2. Zaintza Ekosistema Lokalen markoa

Zaintza Ekosistema Lokalen ikuspegiak azken urteotan hartu du indarra, tokiko zaintza-sistemen antolaketa eta gobernantza berritzeko marko kontzeptual gisa. Eredu honek zaintza ulertzen du eskubide sozial, politika publiko eta praktika komunitario gisa aldi berean, eta zaintza-beharren erantzunkidetasuna maila desberdinetan antolatzen duen sistema integratua planteatzen du.

Ikuspegi honek honako printzipio estrategikoak ditu oinarri:

a) Zaintza premia unibertsala eta bizitzaren zikloan zeharrekoa

Zaintza ez da adin edo egoera jakin bati lotutako jarduera; bizitzaren etapa guztietan azaldu ohi da intentsitate eta izaera desberdinetan. Horrek eskatzen du beharrei erantzuteko sistema malgu eta jarraitua.

b) Elkar-mendekotasunean oinarritutako ikuspegia

Pertsonen autonomia ez da ulertzen harreman sareetatik kanpo. Autonomia indartzeko, beharrezkoa da zaintza formalen eta informalaren arteko osagarritasuna, eta komunitateak duen gaitasun sozializatzailea aitortzea.

c) Genero-ikuspegi eraldatzailea

Zaintza-lanen banaketa asimetrikoak —emakumeen gain pilatzen diren lanak— zaintza sistema osotasunean berrantolatzeko premia agerian jartzen du. Zaintza Ekosistemek erantzunkidetasuna eta lanaren sozializazioa bilatzen dituzte, herri-politiketan dimentsio feminista txertatuz.

d) Lankidetzazko gobernantza

Eredu honek eragile publikoak, komunitarioak, profesionalak, familiak eta zaintza-beharra duten pertsonak beraiek ere erabaki-prozesuaren parte bihurtzen ditu. Zaintza antolatzeko hurbileko gobernantza egiturak sortzea du helburu: mahaiei, sareei eta parte-hartze mekanismo egonkorren bidez.

e) Hurbiltasunaren logika

Tokiko errealitatea funtsezkoa da zaintza-politiken diseinuan. Udalerria da baliabideak koordinatzeko eta herritarren beharrak modu zehatzagoan identifikatzeko mailarik egokiena.

f) Prebentzio eta komunitate-ongizatearen ikuspegia

Zaintza ez da soilik egoera larrietan ematen den laguntza; komunitate osasuntsu eta integratu bat eraikitzeko baldintza da. Horregatik, prebentzioan, autonomia sustatzean eta lotura sozialak indartzean oinarritzen da.

Ikuspegi hau guztiz lerrokatzen da “Anoeta, elkar zainduz” prozesuaren planteamenduarekin. Zaintza Ekosistema Lokal baten eraikuntzak aukera ematen du herriko beharrei modu integralean heltzeko, tokiko baliabideak saretu eta eragile guztien arteko ko-ardurapidetza sustatuz. Diagnosi honek, beraz, ez du soilik gaur egungo egoera aztertzen; etorkizuneko Zaintza Ekosistemaren diseinurako oinarri kontzeptuala ere eskaintzen du.

2. MARKO TEORIKO ETA KONTZEPTUALA

2.1. Zaintzen ulerkera

Zaintzaz hitz egitean, lehen premisa da pertsona guztiak elkar-mendekoak garela. Bizitzako etapa guztietan —haurtzaroan, osasun arazoaren uneetan, mendekotasun egoeretan edo zahartzaroan— beste pertsona, sare edo instituzioen laguntza behar dugu. Genealogia feministatik, zaintza ongizate fisiko, psikiko eta emozionala bermatzen duten jardueren multzo gisa ulertu da (Finch, 1989; Comas d’Argemir, 1993), eta eguneroko praktikek erakusten dute zaintzak forma eta intentsitate askotarikoak hartzen dituela, pertsonen egoeraren eta testuinguruaren arabera (Saitua & Sarasola, 1993).

Ikuspegi feministan oinarrituta, zaintza ez da jarduera naturalizatua, baizik eta lan sozial eta politikoa, historikoki feminizatua eta gutxi baloratua. Emakumeek —eta bereziki emakume migratuek— hartu izan dute beren gain bai zaintza ez-ordaindua, bai baldintza prekarioetan egiten den zaintza ordaindua (Pautassi, Faur & Gherardi, 2004; Pérez Orozco, 2014). Horrek eragin zuzena izan du denboraren banaketan, autonomia ekonomikoan eta bizi-proiektuak garatzeko aukeretan (Carrasco, 2001; Fraser, 2016).

Pandemiak eta horren ondorengo krisi sozialak nabarmendu dute zaintzak gaur egun dituen arrakalak eta egiturazko ahulguneak. COVID-19aren esperientziak agerian utzi zuen zaintza-sare instituzional eta komunitarioak indartzeko premia, eta zaintzak harreman, aitortza eta tratu onean oinarritutako ikuspegi zabalago bat behar duela (Goikoetxea, 2020). Hori guztia kontuan hartuta, zaintza ulertzen da bizitzaren antolaketa sozialaren erdigunea den egitura gisa, eta ez soilik zerbitzu tekniko edo familiako ardura gisa.

2.2. Zaintzen bilakaera historikoa

Zaintzaren antolaketa historikoki etxeko esparruan eta emakumeen ardura naturalizatueta oinarritu da (Delphy, 1998). Ongizate-estatuen hedapenarekin zerbitzu batzuk formalizatu baziren ere, genero-rol tradizionalak indarrean jarraitu zuten, eta etxeko lanen feminizazioak bere horretan iraun zuen (Lewis, 1992). Globalizazio garaian, zaintza-lanaren zati handi bat merkaturatu eta nazioarteko migrazio-fluxuen bidez antolatu da, azkenik zaintza-kate globalak sortuz (Hochschild, 2001).

Bilakaera horrek erakusten du etxeko esparruko zaintza eredua ez dela nahikoa gaur egungo testuinguruan: biztanleriaren zahartzea, familia-ereduen aldaketa eta komunitate-loturen ahultzea batera gertatzen ari dira, eta horrek beharrezko egiten du zaintza-eredu publiko-komunitarioen eguneratzea eta berrantolaketa.

2.3. Zaintzaren krisia eta ongizate sistemen mugak

Azken urteetan, zaintzen krisia gizarte-ereduaren krisia bihurtu da. Biztanleriaren zahartzea, mendekotasun tasen gorakada, genero-rolen aldaketa, familia nuklearraren ahultzea, eta lan-merkatuaren indartzea faktore konbergenteak dira, eta guztiek dute eragin zuzena zaintza-sistemen jasangarritasunean. Emaginek (2020) ohartarazi du gaur egungo sistemek ez dutela gaitasunik biztanleriaren geruza askoren ongizatea bermatzeko, eta joerak okerrera egingo dutela zaintza-ereduak eguneratzen ez badira.

Ongizate-sistema publikoek dituzten mugak nabarmenak dira. Sarri, arreta zuzentzen da mendekotasun handiko egoeretara, baina eguneroko zaintza arinak, laguntza informala edo komunitate-sareak bigarren mailan geratzen dira. Ondorioz, zaintza familietan eta emakumeen bizkar pilatzen da oraindik ere.

COVID-19aren pandemiak egoera hori are lazarriago bihurtu zuen: baliabide soziosanitarioen gailak, isolamendua eta zaintza-sare informalaren kolapso partzialak erakutsi zuten egiturazko ahultasuna. Krisiak agerian utzi zuen zaintza ez dela familia barruko arazoa, baizik eta ongizate publikoaren eta gizarte-kohesioaren oinarria.

2.4. Dikotomiekin hautsiz: bizitzaren iraunkortasunaren ekonomia

Ekonomia feministak agerian utzi du lan produktiboaren eta lan erreproduktiboaren arteko bereizketa tradizionala ez dela egokia gizartearen funtzionamendua ulertzeko. Bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegiak —Borderías et al. (1994); Pérez Orozco (2019)— argudiatzen du ezin dela ekoizpen ekonomikoa ulertu bizitzaren sostengu material eta emozionala bermatzen duten jarduerak kontuan hartu gabe.

Horren arabera, autonomia eta mendekotasunaren arteko bereizketa faltsua da: pertsona guztiek, bizitzako une guztietan, zaintza behar dute, eta horrek interdependentzia du oinarri. Pérez Orozcoren (2019) hitzak adierazgarriak dira ikuspegi hau ulertzeko:

“Todas las personas en todos los momentos de nuestras vidas necesitamos cuidados porque nuestras vidas son vulnerables... la economía debe pensarse desde un enfoque de interdependencia.”

Horrela, zaintza ez da ondasun pribatua edo familiei dagokien ardua; gizartearen funtzionamendu politiko, ekonomiko eta sozialaren azpiegitura nagusienetako bat da..

2.5. Zaintzen ikuspegi feminista eta intersektionala: kokapenak eta desberdintasun ardatzak

Zaintzaren antolaketa ezin da genero-harremanetatik bereizita ulertu. Zaintza-lanen banaketa botere-harremanen emaitza da, eta emakumeek hartu izan duten ardua historikoa ez da neutroa, ezta egiturazko desberdintasunik gabekoa ere (Fraser, 2016; Pérez Orozco, 2014).

Ikuspegi intersektionalak (Crenshaw, 1989; Hill Collins, 2000) ohartarazten du generoari lotutako desberdintasunak beste ardatz sozial batzuekin gurutzatzen direla: klase soziala, jatorria, adina, administrazio-egoera, desgaitasuna edo LGBTIQ+ identitatea. Ondorioz, zaintza-lanen prekaritatea eta ikusezintasuna ez dira modu berean bizitzen: emakume

migratu eta arrazializatuek pairatzen dute zaintza-lanen zati zorrotzena eta baldintzarik prekarioenak (Federici, 2012; Emagin, 2020).

Marko honetatik, zaintza-sistemak desberdintasun erregimen baten parte direla ulertzen da, eta politika publikoek nahitaez txertatu behar dute ikuspegi intersektzionala, zaintza bidezkoagoa antolatu ahal izateko.

2.6. Zaintzaren eskubide kolektiboa

Zaintzaren inguruko teorizazio eta politika-esparru garaikideek adierazten dute zaintza ez dela banakoaren edo familia nuklear isolatuaren ardura, baizik eta gizarte osoari dagokion eskubide kolektibo bat. Ikuspegi hau sendotu egin da bai ekonomia feministaren ekarpenei esker, bai nazioarteko eta Europako politika publikoek azken urteotan txertatu duten zaintza-ikuspegi zabalagoaren ondorioz (European Commission, European Care Strategy, 2022).

Normatiboki, eskubide kolektiboaren ikuspegiak, bizi-ziklo osoan zehar pertsona guztiek baldintza duinetan zainduak izateko eta zaintzeko aukera izan behar dutela dio. Logika horren atzean dago Trontok (1993) defendatutako ideia: zaintza da bizitza sozialaren oinarritzko baldintza, eta horregatik, zaintza-beharrak ezin dira merkatuaren edo familien gain erabat utzi, “zaintza gizarte demokratikoen azpiegitura politiko nagusietako bat delako”.

Euskal testuinguruan ere ikuspegi hori garatzen ari da. Eusko Jaurlaritzaren zaintza-estrategiek eta foru-politikek zaintza ulertzen dute egiturazko eskubide gisa, eta zaintza-eredu publiko-komunitarioaren aldeko apustua egiten dute, zaintzen sozializazioaren eta erantzunkidetasunaren printzipioetan oinarrituta.

Eskubide kolektiboaren ikuspegiak bi dimentsio nagusi uztartzen ditu: batetik, zaintza jasotzeko eskubidea, pertsona bakoitzak bere autonomia, duintasuna eta parte-hartzea bermatuko dituen baldintzetan; eta, bestetik, ez inmolatzeko eskubidea, ekonomia feministak nabarmendu duen moduan (Pérez Orozco, 2014), zaintza-lanak ez daitezen emakumeen gain pilatu, ez eta bizi-proiektuen kalterako bihurtu.

Horrenbestez, zaintza-eskubidea ez da soilik norbanakoen ongizatearen bermea; antolaketa politiko eta sozialaren ardatza da, eta zaintza-sistemen diseinuak eskubide hori bermatzeko behar diren egitura publiko eta komunitarioak eratu behar ditu.

2.7. Erantzunkidetasuna eta ardura soziala: elkarlan publiko-komunitarioaren erronka

Zaintza antolatzeko eredu berriek erantzunkidetasuna dute oinarri: zaintza ezin da soilik administrazioaren edo familien gain utzi; baizik eta norbanakoek, familiek, komunitateek, erakunde publikoek eta zaintza profesionaleko eragileek ko-ardurapean antolatu behar dute. Ardura sozialaren kontzeptuak —Berman (1997); Cabrera (2006); Montero (2004)— gogorarazten du zaintza ezin dela ulertu banakako ekintzen ikuspegitik soilik: gizartearen ongizatea bermatzeko ekintza kolektibo eta partekatu gisa ulertu behar da.

Ikuspegi komunitarioak —Montero (2003)— erakusten du aldaketa sozial iraunkorrek komunitatearen parte-hartze aktiboa behar duela; eta komunitateak ez duela soilik jasotzen, baizik eta zaintza antolatzeko gaitasuna, erantzukizuna eta eskubidea ere badituela. Horregatik, zaintza-politikek lotura estua izan behar dute elkarlan publiko-komunitarioarekin, tokiko eragileen arteko koordinazioa, harreman-sareak eta zaintza-sareak egituratzeko.

Anoetako Zaintza Sarea prozesuak, ikuspegi horretan, eredu praktikoa bat eskaintzen du: zaintzaren antolaketa komunala eta kooperatiboa indartzea, eragile guztien arteko elkarbizketa eta parte-hartzea lehenetsiz.

2.8. Zaintza


Zaintza ez da esparru bakarrean gertatzen den jardura, baizik eta espazio sozial, instituzional eta erlazional anitzen arteko elkarrenginetan sortzen eta sostengatzen den prozesu konplexua. Ikuspegi sozio-ekologikoen azpimarratzen duten bezala, zaintza-beharrak eta haiei ematen zaizkien erantzunak ez dira ulertzen banakoen edo familien mailan soilik, baizik eta testuinguru instituzional, komunitario eta sozioekonomiko zabalago batean txertatuta (Bronfenbrenner, 1979; Daly & Lewis, 2000).

Ekonomia feministatik egindako ekarpenek norabide horretan sakontzen dute, zaintza-lanak eta ongizatea ekoizteko prozesuak esparru publikoaren, pribatuaren, komunitarioaren eta familiar/afektiboaren arteko harremanetan kokatuz (Carrasco, 2001; Pérez Orozco, 2014). Ikuspegi horretatik, zaintza-ekosistema ulertzea funtsezkoa da zaintza-arduren banaketa, botere-harremanak, hutsuneak eta gainjartzeak identifikatzeko.

Marko honetatik abiatuta, diagnostiko honek esferen sistema erabiltzen du zaintza-errealitatea aztertzeko egitura analitiko gisa. Esfera bakoitzak tokiko zaintza-sisteman funtzio, erantzukizun eta posizio desberdinak betetzen dituzten eragileak biltzen ditu, eta horien arteko elkarreraginek osatzen dute zaintzaren eguneroko antolaketa. Esferak ez dira kategoria itxi edo eksklusiboak: pertsona berak aldi berean hainbat esferatan kokatu daitezke, eta posizio horien gainjartzeak baldintzatzen ditu bizipenak, diskurtsoak eta praktikak.

Diagnostikoan erabilitako esferen sistemak bost esfera nagusi bereizten ditu: esfera publikoa, zerbitzu-hornitzaileen esfera pribatua, esfera komunitarioa, zaintzaileen esfera eta zaintza-beharrak dituzten pertsonena. Sailkapen honek aukera ematen du zaintza-politiken, zerbitzuen, praktika informal eta profesionalen, eta zaintza-esperientzien arteko loturak modu integratuan aztertzeko, ondorengo ataletan aurkeztuko diren analisi kuantitatibo eta kualitatiboen oinarri teorikoa ezarriz.

1. Irudia. Zaintza Ekosisteme Esfera Sistema



Iturria: Zabalduz Kooperatiba

3. DIAGNOSTIKOAREN HELBURUAK

3.1. Helburu orokorra

Diagnostikoa ez da informazioa jasotzeko tresna hutsa; sentsibilizazioa, aktibazioa eta lankidetzaren publiko-komunitarioa indartzeko espazioa ere bada. Prozesu honen bidez, zaintzaren inguruko bizipenak, pertzepzioak eta beharrak modu sistematikoan jaso, interpretatu eta partekatzen dira, etorkizuneko Zaintza Ekosistemaren diseinurako oinarri bateratua eratuz.

Diagnostiko honen helburu nagusia Anoetako zaintza-sistemaren egungo errealitatea modu integratuan ezagutzea da, herritarren, eragileen eta udaleko zein komunitateko sareen ikuspegia uztartuz.

3.2. Helburu espezifikoak

Diagnostikoak, bere helburu orokorra lortzeko, honako helburu espezifiko hauek garatzen ditu:


- Zaintzaren inguruko hausnarketa soziala eta sentsibilizazioa sustatzea, herritarrek eta eragileek zaintzaren dimentsio pertsonal, sozial eta komunitarioa ikusarazteko.
- Zaintzaren begirada partekatu eta erantzunkidea eraikitzea, zaintza-lanen banaketaren inguruko pertzepzioak, erronkak eta desberdintasunak identifikatuz.
- Zaintza-ekosistemaren eragile nagusiak identifikatzea eta aktibatzea, eta beraien eginkizuna, gaitasunak eta harreman-dinamika ezagutzea.
- Ehun komunitarioaren indarra, saretze-maila eta dinamiken analisia egitea, zaintza komunitarioa garatzeko aukerak eta mugak aztertuz.
- Erakunde publikoen eta komunitatearen arteko harremana aztertzea, elkarlanaren potentziala eta gaur egungo koordinazio-maila baloratuz.
- Herritarrek eta eragileek zaintzaren inguruan duten ulerkera eta esperientziak ezagutzea, zaintza formal eta informalaren egoera eta erronkak identifikatuz.
- Zaintza-politiken eta gizarte zerbitzuen ezagutza-maila eta pertzepzioak jasotzea, herritarrek dituzten beharrak, hutsuneak eta hobekuntza-proposamenak bilduz.

- Zaintzaren ardura eta erantzunkidetasunarekiko jarrerak aztertzea, norbanakoek, familiek, komunitateak eta erakundeek duten rola inguruko ikuspegiak argituz.
- Zaintzaren inguruko ikuspegi anitzak biltzea eta elkarren arteko ezagutza sustatzea, esfera desberdinen (publikoa, komunitarioa, familiakoa, profesionala, zainduena) arteko enpatia eta ulermena indartuz.
- Zaintza Sarea artikulatzeko oinarriak sendotzea, eragileen arteko lankidetzak, konfiantza eta ko-produkzioa sustatuz, etorkizuneko Zaintza Planaren diseinua errazteko.

4. METODOLOGIA

4.1. Ikuspegi metodologiko orokorra

2. Irudia: Zaintza Diagnostikoaren baliabideen identifikazioa



Iturria: Zabalduz Kooperatiba

Diagnostiko honetan ikuspegi mistoa erabili da, datu kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatuz, Anoetako zaintza-errealitatearen irudi integratua lortzeko. Alde batetik, ikuspegi kuantitatiboak aukera eman du herritarrei zabalduko galdetegi bidez zaintza-praktiken hedadura, pertzepzio nagusiak eta profil sozio-demografikoen arteko desberdintasunak modu sistematikoan jasotzeko. Galdetegiak, herritarren zaintza-esperientziari buruzko informazioa biltzeaz gain, esferen arteko harremanak eta zaintzaren antolaketaren logika orokorra aztertzeke aukera eman du.

Bestetik, ikuspegi kualitatiboak sakontasun analitikoa gehitu du, erdi-egituratutako elkarriketen eta talde-elkarriketen bidez jasotako diskurtsoen, esperientzien eta interpretazioen bidez. Elkarriketa-formatuak ahalbidetu du herritarrek eta eragileek zaintzaren inguruan bizi dituzten egoera, erronka eta esanahien ñabardurak ezagutzea, eta zaintzaren dimentsio formal eta informalak sakonago ulertzea.

Bi ikuspegiak esferen sistemaren arabera antolatu dira, eta horrek aukera eman du datuak modu bateratuan analizatzeko. Esfera bakoitzean jasotako informazio kuantitatibo eta kualitatiboak elkarri lotuta interpretatu dira, zaintza-ekosistemaren argazki koherente eta integrala osatzeko.

4.2. Gobernantza eta prozesuaren antolaketa

“Anoeta, elkar zainduz” egitasmoaren diagnostiko-prozesua Udalak eta Zabalduz Kooperatibak elkarrekin koordinatuta garatu da, eta horretarako talde motor egonkor bat eratu da. Talde honek egitasmoaren diseinua, garapena eta jarraipen metodologikoa gidatu ditu, eta prozesu osoan zehar koherentzia eta lerrokadura bermatu ditu.

Talde motorra izan da informazio-bilketaren faseen planifikazioa eta egokitzapena egiteaz arduratu den espazioa: galdetegiaren eta elkarriketen diseinua, eragileen identifikazioa eta harremanetarako estrategiak, komunikazio-jarduerak eta prozesuaren erritmoaren jarraipena. Halaber, landa-lanean jasotako lehen emaitzen inguruko balorazio eta kontraste-saioak egin ditu, eta diagnostikoaren edukia artikulatzen lagundu du.

Anoetako udalaren eta Zabalduz Kooperatibaren arteko elkarlan honek, batetik, tokiko testuinguruaren ezagutza zehatza txertatzea, eta bestetik, prozesuaren izaera parte-hartzailea eta herritarrekiko hurbiltasuna bermatzea erraztu du.

1. Taula. Talde motorraren osaera eta eginkizun nagusiak		
Anoetako Udala	Eragilea	Eginkizun nagusiak
Alkatetza	Egoitz Luisa	Gidaritza instituzionala
Alkateorde / Zinegotzia	Ana Elozegi	Gidaritza instituzionala
Zinegotzia	Bakarne Garmendia	Gidaritza instituzionala
Kultur Teknikaria / arduraduna	Tere Soto	Gidaritza instituzionala
Gizarte Zerbitzuetako teknikaria	Nagore Amundarain	Gidaritza eta eragileen lotura
Zabalduz Kooperatiba	Eragilea	Eginkizun nagusiak
Koordinazio teknikoa	Naiara Franco	Koordinazio teknikoa
Garapen teknikoa	Katrin Etxebeste	Diagnosiaren garapena
Garapen teknikoa	Esti Beraza	Diagnosiaren garapena

4.3. Parte-hartzaileen laginketa eta esferen sistema

Landa-lana antolatzeko eta ikuspegi integrala bermatzeko, laginketa-estrategia intentzional bat erabili da, zaintza-ekosistemaren bost esferen arabera antolatua. Esfera horiek tokiko zaintza-sisteman posizio desberdinak betetzen dituzten eragileak biltzen dituzte, eta aukera

ematen dute zaintzaren antolaketan gertatzen diren elkarguneak, tentsioak eta harreman sareak modu egituratuan aztertzeko.

Ikuspegi honek bat egiten du ikuspegi sozio-ekologikoekin eta ekonomia feministaren planteamenduekin, zeinen arabera zaintza esparru publikoaren, pribatuaren, komunitarioaren, familiar/afektiboaren eta zaintza-beharren arteko elkarreraginaren bidez ulertzen baita.

Metodologia guztietan tresna bera erabili da (elkarrizketa erdi-egituratua), galdetegi komun baten bidez lau dimentsio hauek aztertzeko:

- Zaintzaren ulerkera eta pertzepzioa orokorra
- Zaintza-politiken eta zerbitzuen irakurketa
- Komunitatearen rola eta sentsibilizazio maila
- Zaintza-sarearen antolaketa eta lanketa publiko-komunitarioaren beharra

Esferak ez dira kategoria itxiak: pertsona bera aldi berean esfera bat baino gehiagotan kokatu daiteke. Egoera hori kontuan hartu da bai laginketan, bai analisiaren fasean.

4.3.1. Esferen arabeko taldekatzea

Behean laburbiltzen dira diagnostikoan erabili diren bost esferak eta bakoitzak ekartzen duen ikuspegi berezia:

a) Esfera publikoa

Zaintzaren gaineko erantzukizun instituzionala duten eragileak biltzen ditu: udaleko arduradun politikoak, gizarte zerbitzuetako teknikariak, osasun-profesionalak eta bestelako langile publikoak. Esfera honek eskaintzen du zaintza-politiken diseinuaren, lehentasunen, zerbitzuen egokitzapenaren eta oztopo instituzionalen irakurketa.

b) Esfera pribatua / zerbitzu-hornitzaileak

Zaintza-zerbitzuak (etxez etxeko laguntza, adinekoentzako zerbitzuak, haurtzaroaren arreta...) eskaintzen dituzten erakunde eta profesionalak biltzen ditu. Hauen ekarpenak zaintza-zerbitzuen kudeaketa, baldintzak eta eguneroko praktikak ezagutzeko aukera ematen du.

c) Esfera komunitarioa

Tokiko elkarteak, talde komunitarioak, sare informalak eta herritarren arteko laguntza-dinamikak biltzen ditu: jubilatuen elkarteak, kultur eta kirol taldeak, farmaziak, guraso-elkarteak, eta komunitatean zaintza modu formalean edo informalean sostengatzen duten beste eragile batzuk. Esfera honen bidez zaintza-kulturaren pertzepzio soziala eta sareze-maila aztertu dira.

d) Zaintzaileen esfera (familia/afektiboak eta profesionalak)

Zaintza-lanetan aritzen diren pertsonak hartzen ditu: zaintzaile informalak (senitartekoak, auzokoak, lagunak) eta zaintzaile profesionalak. Funtsezkoak izan dira zaintzaren baldintzak, kargak, emozioak, bateragarritasun erronkak eta aitortzaren inguruko pertzepzioak ezagutzeko.

e) Zainduen esfera

Zaintza behar duten pertsonak eta zaintza zerbitzuen erabiltzaileak biltzen ditu: adinekoak, mendekotasun egoeran dauden pertsonak eta bestelako arreta-beharrak dituzten herritarrak. Haien testigantzek tratua kalitatea, irisgarritasuna eta zaintza-esperientzia aztertze aukera eman dute.

2. Taula. Esferen deskribapen laburra	
Esfera	Deskribapen sintetikoa
Esfera publikoa	Zaintzaren ardura instituzionala duten eragileak eta profesionalak.
Esfera pribatua / zerbitzu-hornitzaileak	Zaintza-zerbitzuak modu profesionalean eskaintzen dituzten erakunde eta langileak.
Esfera komunitarioa	Herriko elkarteak, sare informalak eta tokiko eragile sozial parte-hartzaileak.
Zaintzaileen esfera	Zaintza lanak egiten dituzten pertsonak, bai ordaindu gabe bai profesional moduan.
Zainduen esfera	Zaintza behar duten pertsonak eta zaintza-zerbitzuen erabiltzaileak.

4.3.2. Esfera bakoitzerako inklusio-irizpideak

Parte-hartzaileen hautaketa laginketa intentzionalaren bidez egin da, helburua ez delarik ordezkartza estatistikoa, baizik eta zaintza-ekosistemaren posizio eta funtzio nagusien ordezkartza esanguratsua lortzea. Esfera bakoitzerako irizpideak hauek izan dira:

3. Taula. Inklusio-irizpide nagusiak esfera bakoitzerako	
Esfera	Deskribapen sintetikoa
Esfera publikoa	Zaintzarekin lotura duten ardura politikoak edo lanpostu teknikoak izatea.
Esfera pribatua / zerbitzu-hornitzaileak	Zaintza-zerbitzuen horniduran zuzenean parte hartzea.
Esfera komunitarioa	Tokiko sare edo elkarteetan parte-hartze aktiboa izatea.
Zaintzaileen esfera	Zaintza-lanen ardura izatea (formala edo informala).
Zainduen esfera	Zaintza-beharrak edo udaleko zerbitzuen erabilera izatea.

Laginketa-irizpide horiek erabilia, Anoetako zaintza-errealitatea osatzen duten pertsona eta eragileen ikuspegi aniztasuna bermatu da, eta, horri esker, diagnostikoak ikuspegi integrala eta konplexutasunarekiko sentsibilitatea izan du.

4.4. Tresnak eta datuen bilketa

Diagnostikoan erabilitako informazio-bilketaren estrategia ikuspegi misto batean oinarritu da, tresna kuantitatibo eta kualitatiboak uztartuz. Hiru tresna nagusi erabili dira: galdetegia, elkarrizketa erdi-egituratuak eta talde elkarrizketak. Tresna hauek modu osagarrian diseinatu dira, herritarren, eragileen eta esferen arteko posizioen ikuspegi anitzak jasotzeko, eta zaintzaren inguruko esperientzia pertsonal nahiz kolektiboetan sakontzeko.

4.4.1. Galdetegia

Galdetegia herritarrei eta zaintzarekin harreman zuzena duten pertsonen zuzendutako tresna zabal eta eskuragarria izan da. Helburua izan da zaintzaren inguruko pertzepzio orokorrak, esperientziak eta balorazioak modu sistematikoan jasotzea. Galdetegia online eta aurrez aurreko euskarrietan jarri da eskuragarri, parte-hartzea errazteko eta profil aniztasuna bermatzeko.

Galdetegiak parte-hartzailearen egoera soziodemografikoa eta zaintza-esperientzia jaso ditu, baita zaintzaren antolaketari, zerbitzuen ezagutzari, zaintza-kulturan parte hartzeari eta etorkizuneko beharrianen pertzepzioari buruzko informazioa ere. Jasotako datuek aukera eman dute joera orokorrak identifikatzeko eta ondorengo azterketa kualitatiboak testuinguruan kokatzeko.

4.4.2. Elkarrizketa erdi-egituratuak

Elkarrizketa erdi-egituratuek informazio kualitatibo sakona lortzeko balio izan dute, laginketa intentzionalaren bidez hautatutako pertsona eta eragileei eginda. Elkarrizketak gidoi komun batean oinarritu dira, baina malgutasunez garatu dira, parte-hartzaile bakoitzaren testuingurura egokituta.

Elkarrizketen bidez zaintzaren inguruko bizipenak, interpretazioak, zailtasunak, beharrianak eta proposamenak modu xehe eta aberastuan jaso dira. Horri esker, udalerriko zaintza-sistemaren antolaketan, harremanetan eta erantzukidetasun-dinamiketan eragina duten ñabardura ugari identifikatu dira.

4.4.3. Talde elkarrizketak

Talde elkarrizketek aukera eman dute esperientzia partekatuak eta ikuspegi kolektiboak jasotzeko, parte-hartzaileek elkarrekin hausnartu eta eztabaidatzeko espazio gidatu batean. Ez dira focus group estandarrak izan; Anoetako testuingurura egokitutako formatu malguak erabili dira, parte-hartzaileen eskuragarritasuna eta erritmoa kontuan hartuz.

Dinamika hauetan hainbat esferatako kideek parte hartu dute, eta zaintzaren inguruko adostasunak, desadostasunak, kezkak eta proposamenak azaleratu dira. Talde elkarrizketek, gainera, aukera eman dute ikuspegi indibidualak kolektiboarekin kontrastatzeko eta udalerriko zaintza-kulturaren egoera orokorra modu zehatzagoan ulertzeko.

4.5. Dimentsioak eta adierazleak

Diagnostiko honen analisiak lau dimentsio nagusitan antolatu da, Anoetako zaintza-errealitatea ulertzeko oinarrizkoak diren esparruak barne hartuz. Dimentsio hauek gidatzen dute bai datu kuantitatiboaren interpretazioa, bai elkarrizketa eta talde-dinamika kualitatiboetan jasotako informazioaren azterketa. Helburua da zaintza-sistemaren funtzionamendua ikuspegi integratu batetik ulertzea: bizipen pertsonalak, antolaketa instituzionala, komunitatearen rola eta etorkizuneko erronkak uztartuz.

Dimentsio bakoitzak adierazle nagusi batzuk bildu ditu; hauek ez dira sailkapen itxiak, baina diagnostikoaren interpretazioa modu koherentean egituratzeko balio dute, eta ondorengo kapituluetan erabiliko den analisi bateratuaren oinarria osatzen dute.

4. Taula. Diagnostikoaren dimentsio nagusiak, adierazleak eta azpi-adierazleak

Dimentsioak	Adierazle nagusiak	Azpi-adierazleak
Zaintzaren ulkerak eta esperientzia pertsonala	Zaintza nola antolatzen den eta nola bizitzen den pertsonen egunerokoan	Zaintza-lanen banaketa norbanakoaren eta familiaren artean; zaintza informalaren intentsitatea eta iraupena; zaintzak ongizate emozionalean, fisikoan eta ekonomikoan duen eragina; generoaren eta adinaren arabera aldeak; zaindua izatearen eta zaintza-ardura izatearen inguruko bizipen eta pertzepzio sozialak.
Zaintza-politikak eta zerbitzuen antolaketa	Zaintza-zerbitzuen ezagutza, irisgarritasuna eta egokitasuna	Udal eta beste maila batzuetako zerbitzuen ezagutza eta erabilera; irisgarritasun fisiko, ekonomiko eta informazionala; burokrasia eta tramiteen esperientzia; baliabideen nahikotasun eta egokitasunaren balorazioa; zerbitzuen arteko koordinazio-maila; sistemaren hutsuneak eta estali gabeko zaintza-beharak.
Komunitatearen rola, sentsibilizazioa eta erantzukidetasuna	Zaintzaren inguruko kultura soziala eta komunitatearen inplikazioa	Zaintza ardura pertsonal, familiar, komunitario edo instituzional gisa nola ikusten den; auzolanetan eta sare informalean parte-hartzea; komunitate-sareen indarra eta laguntza-funtzioa; herritarren sentsibilizazio eta kontzientzia maila; estereotipo eta joera indibidualisten eragina; zaintza partekatuan eta erantzukidetasunean parte hartzeko prestutasuna.
Tokiko zaintza-sarea eta etorkizuneko ekosistemaren ikuspegia	Zaintza-sarearen egungo egitura eta etorkizuneko erronkak	Zaintza-sare formal eta informalaren antolaketa eta estaldura; "zaintza ona"ren definizioa herritarren eta eragileen ikuspegitik; esferen arteko elkarlanaren kalitatea (publikoa, pribatua, komunitarioa, zaindarien eta zainduen esferak); etorkizunerako behar eta lehentasun estrategikoak; Zaintza Ekosistema lokalaren garapenerako proposamenak eta aukerak.

4.6. Aspektu etikoak eta datu-babesa

Diagnostiko-prozesu osoan zehar, parte-hartzea erabat borondatezkoa izan da, eta parte-hartzaile guztiek informatutako baimena eman dute elkarriketetan eta talde-saioetan parte hartzeko. Bildutako informazioa modu anonimo eta konfidentzialean tratatu da, eta ez da inongo txostenetan edo materialetan pertsona identifikagarriarik jasoko.

Elkarriketetako grabazioak soilik analisi kualitatiboa errazteko erabili dira, eta baldintza seguruan gorde dira prozesua amaitu arte, une horretan ezabatuz. Datu pertsonalen tratamendua indarreko araudia errespetatuz egin da, eta parte-hartzaileek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo tratamendua mugatzeko eskubidea dute, horretarako Anoetako Udalarekin harremanetan jarrita¹.

4.7. Datuen analisisia

Diagnostiko honen analisisia ikuspegi misto batean oinarritu da: galdetegitik eratorritako datu kuantitatiboak eta elkarriketa zein talde-dinamiketan bildutako datu kualitatiboak modu osagarrian aztertu dira. Analisiaren ardatz nagusiak 4.5 atalean definitutako dimentsioak izan dira, eta horien inguruan antolatu dira bai emaitza estatistikoak, bai diskurtso kualitatiboak.

4.7.1. Datu kuantitatiboak

Galdetegian jasotako erantzunak “Google Forms” aplikazioaren bidez zentralizatu dira datu-base bakarrean. Galde-sorta egituratuari eta tresna informatikoaren aukerei esker, emaitzak modu kuantitatiboan eta grafikoan aurkeztu ahal izan dira, maiztasun eta ehunekoen bidez, baita aldagai nagusien arteko gurutzaketak eginez ere.

Zenbait galderatan 0–10 eskala ordinalak erabili dira eta beste batzuetan erantzun-kategoria semantikoak, intentsitatea eta esanahi afektiboak bateratuan irakurri ahal izateko. Horrela, zaintzarekiko pertzepzio orokorra, zaintza-esperientziaren intentsitatea eta laguntza-sareen balorazioa dimentsio beretik aztertu dira, pertsona bakoitzaren errealitatearen arabera.

¹ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua —Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (DBEO)—, eta aplikagarri diren estatuko eta autonomia-erkidegoko datu-babes arauak.

4.7.2. Datu kualitatiboak

Datu kualitatiboak galdetegiko galdera irekietatik, elkarrizketa erdi-egituratuetatik eta talde-elkarrizketetatik jaso dira, eta guztia transkribatu, kodetu eta analisi tematiko baten bidez aztertu da. Kodeen antolaketa 4.5 atalean deskribatutako lau dimentsioen inguruan egituratu da, eta horrek aukera eman du esperientziak, pertzepzioak eta proposamenak modu koherentean sailkatzeko.

Landa-lanaren garapenean, informazioa metatzen joan den heinean, eragile batzuek beste zenbait eragile eta baliabide identifikatzeko bidea ireki dute; horrek “ur-jauzi efektua” elikatu du, eta pixkanaka zaintzaren inguruko hausnarketa eta sentsibilitatea areagotzen lagundu du herrian.

4.8. Kronograma

5. Taula. Talde motorraren osaera eta eginkizun nagusiak																
Eginkizunak	2025											2026				
	U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A	U	O	M	A
Eginkizunak			X													
Talde motorra osatu. Planifikazioa				X	X											
Tresnen diseinua (Galdetegia eta elkarrizketa)				X	X	X	X	X	X	X						
Mapeoa: Pertsona eta eragileen identifikazioa									X							
Komunikazioaren planaren diseinua																
Komunikazioaren saretzea (eskutitza...)							X		X	X	X					
Elkarrizketak burutzea										X	X					
On line galdetegia irekita									X	X	X	X				
Diagnostiko kualitatiboko txostenaren erredakzioa													X			
Zaintza mahaiarekin partekatu													X			
Diagnosiaren aurkezpena - Herri topaketa														X		
Jardunaldi inspiragarriak															X	
Zaintza Planaren eraketa																X

5. PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

Atal honetan jasotzen da diagnostikoan parte hartu duten pertsonen profila, bi ikuspegi nagusitatik abiatuta: alde batetik, herritarrei zabaldu zaien galdetegiaren bidez bildutako lagina; eta, bestetik, esferen arabera antolatutako elkarrizketetan parte hartu duten pertsonena. Bi lagin horien konbinazioak aukera ematen du Anoetako zaintza-errealitatea bai maila kuantitatiboan, bai sakontasun kualitatiboan ulertzeko.


5.1. Galdetegiaren parte-hartzea

Galdetegia **75 pertsonak bete zuten (III. eta IV. Eranskinak)**, eta horietatik 71 erantzun baliodun sartu dira analisisan. Parte-hartzaileen profila ondorengo taulan laburbiltzen da.

5.1.1. Profil soziodemografikoa


Galdetegian parte hartu duten gehienak **emakumeak** dira: erantzunen artean, %67,6 emakumeak dira, %31 gizonak eta %1,40a beste genero batekin identifikatzen da. Genero-banaketa horrek bat egiten du zaintzaren feminizazioarekin: praktikan zein diskurtsoan, emakumeek proportzio handiagoan hartzen dute parte zaintzarekin lotutako galdetegietan.

3. Irudia. Galdetegiko genero profila




Horrenbestez, lagina emakumez (67,60%) eta 45 urtetik gorako pertsonez osatua egoteak bat egiten du zaintzaren antolaketan tokiko gizartean dauden rol eta ardurekin. Bizilekuaren datuak adierazten du galdetegiak Anoetako egoera soziosanitarioaren irakurketa oso lokalizatua eskaintzen duela.

3. Irudian errazago ikusi dezakegun bezala, batetik, zaintzaren inguruan hausnartzeko prestutasun handiena 45 eta 74 urte arteko tartean dago, eta, bestetik, adinekoen presentzia esanguratsua dela laginean.



Datuen iturria: Galdetegiaren laburpen taula (III. eta IV. Eranskinak)

Bizilekuari dagokionez, galdetegia ia erabat **Anoetan bizi diren pertsonen** bete dute: erantzun baliodunen %97,20 Anoetako bizilagunak dira, eta %1,4 bakarrik bizi da udalerritik kanpo. Horrek esan nahi du jasotako iritziak Anoetako komunitatearen barruko begiradatik eraiki direla.



Datuen iturria: Galdetegiaren laburpen taula (III. eta IV. Eranskinak)

5.1.2. Galdetegiaren profilaren laburpena

6. Taula. Galdetegiaren profilaren laburpen sintetikoa	
Adierazlea	Laburpena
Parte-hartzaileen kopurua	75 erantzun jaso dira; 71 baliokun analisirako
Genero-profila	Emakumeak: %67,6 (gehiengo nabarmena)
Adin-profila	Laginaren erdia baino gehiago: 45 ≥ urte
Hurbileko zaintza-beharrak	Parte-hartzaileen %50,7k hurbilean zaintza-beharrak ikusten ditu
Zaintzaile-esperientzia	Parte-hartzaileen %52,1ek zaintza-ardurak hartu izan ditu

Datuen iturria: galdetegi itxia (III. eta IV. Eranskinak)

Laburbilduz, galdetegiko laginak zaintzaren inguruan inplikazio eta esperientzia handia duen herritarren sektorea erakusten du; batez ere emakumez, 45 urtetik gorako pertsonaz eta zaintza-beharrak gertutik ezagutzen dituzten herritarrez osatua.

5.2. Elkarriketatuen profila (esferen sistema)

Diagnostiko kualitatiboan **34 pertsonak** parte hartu dute, tokiko zaintza-ekosistemaren bost esferen arabera antolatuta. Esferen sistema aukera metodologiko egokia da zaintza-harremanen antolaketa, tentsio eta potentzialak leku bakoitzetik ulertzeko.

5.2.1. Esferen arabeko banaketa

7. Taula. Elkarriketatuen banaketa esferen arabera (n = 34)			
Esfera	Eragileen/rolen adibideak	N*	%
Esfera publikoa	• Udaleko arduradunak • Udaleko Gizarte Zerbitzuak • Osasun Sistema - Osakidetza	8	23,50%
Esfera pribatua edo zerbitzu-hornitzaileak	• Etxez Etxeko Laguntza (Eulen); • Lahar Elkargoa (Esku-hartze psikosozialerako elkarteak); • Kalexka (Gizarte eta Hezkuntza arloko eta arlo Psikosozialeko Zerbitzuak)	5	14,70%
Esfera komunitarioa	• Botika • Kukua Abesbatza • Matraka • Emakume taldea • Elikagaien bankua • Merkataritza Elkarteak	6	17,60%
Zaintzaileen esfera (profesionalak eta informalak)	• Familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomiko bidez kontratatutako familiarak - FIZPE- (Zaintzaile familiarak)	4	11,80%


	• Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren bidez -LPPE- kontratatutako profesionalak		
Zaintza-beharrak dituzten pertsonen esfera	• Ttipi-ttapa • Estimulazio tailerra	11	32,40%
Guztira	—	34	100%

**N=Pertsona kopurua*

Esferen arabera banaketari dagokionez, elkarrizketetan parte-hartu duten eragileen presentzia, esfera bakoitzaren ordezkaritza bermatzen zuelarik egin da.

Esan beharra dago, parte-hartzaile kopurua esanguratsua den arren, esferen arteko ordezkaritza ez dela kopuru berekoa izan. Hala, 6. Irudian ikusi dezakegun bezala, zaintza jasotzen duten pertsonen ikuspegia (esferarik handiena, %32,4) eta eragile publikoen ikuspegia (%23,5) modu bereziki esanguratsuan ageri dira.

6. Irudia. Elkarrizketatuen parte-hartzea: esferen sistemaren arabera



Iturria: Zabalduz Kooperatiba

Hala ere, kopuruak parekidea ez izan arren, parte-hartzaileek izan dezaketen ordezkaritza maila izan da kontuan hartu dena, eta beraz, era estrategikoan aukeratu izanak, ikuspegi posizional plurala osatzea ahalbidetzen du.

5.2.2. Elkarrizketatutako profilaren laburpena

8. Taula. Elkarrizketen laginaren laburpen sintetikoa	
Adierazlea	Laburpena
Parte-hartzaileen kopurua	34 pertsona (N = 34)
Genero-profila	Emakumeak %79,4 (n = 27) · Gizonak %20,6 (n = 7)
Esferen ordezkartza	Zaintza-ekosistemaren 5 esferak ordezkaturata (publikoa, pribatua, komunitarioa, zaintzaileak, zainduak).
Esferen pisua	Zainduak %32,4 (n = 11) · Esfera publikoa %23,5 (n = 8)
Zaintza-posizioak	Zainduak, zaintzaile informalak eta profesionalak, udal/osasun arloko profesionalak, elkarte eta zerbitzu-hornitzaileak.
Sakontasun kualitatiboa	Esperientzia pertsonalak, profesionalak eta komunitarioak uztartzen dituen lagin anitza.

Iturria: galdetegi itxia (III. eta IV. Eranskinak)

Elkarrizketen laginak zaintza-sistemaren ertzetan eta erdigunean dauden posizio nagusiak biltzen ditu, bereziki emakumeen presentziak markatutako ikuspegi kualitatibo aberats baten bidez.

6. EMAITZEN DESKRIBAPENA

6.1. Galdetegiaren emaitzen deskribapena

Galdetegia 71 pertsonak erantzun dute (n = 71). Laginaren bi heren inguru emakumeak dira (%67,6) eta heren bat gizonak (%31,0); kasu bakarrean ez da generorik adierazi. Adinaren arabera, erantzunak adin-tarte guztietan banatzen dira, baina bereziki 45 urtetik gorako taldeetan pilatzen dira: 45–54 eta 55–64 bitartekoak erantzunen %19,7na bakoitza, 65–74 bitartekoak %16,9 eta 75–84 bitartekoak %15,5. Gazteen presentzia txikiagoa da (16–24 urte %4,2 eta 25–34 urte %8,5), eta 85 urtetik gorako bi pertsona ageri dira (%2,8). Ia parte-hartzaile guztiak Anoetan bizi dira (%97,2k “Bai” erantzun dute), eta kasu bakar batzuetan adierazi da beste herriren batean bizi direla edo erantzunik ez.

Zaintzaren garrantziari dagokionez, galdetegian Otik 10erako eskala erabili da. Parte-hartzaileen gehiengo oso zabalak zaintza oso garrantzitsutzat jotzen du: erantzunen %70,4k 9 edo 10 puntuko balorazioa ematen dute, eta %18,3k 8 puntukoa. Tarte ertaineko balorazioak (5–6 puntu) oso gutxi dira (%4,2), eta erantzunik ez dutenak %4,2 dira. Horrek erakusten du zaintza herritarren ongizaterako funtsezko elementu gisa kokatzen dela galdetegia erantzun dutenen artean.

Zaintza-esperientziei eta zaintza-beharrei buruz galdetzean, parte-hartzaileen %52,1ek adierazi dute inoiz zaindu dutela familiatik kanpoko norbait (auzokide, lagun edo antzeko figura bat), eta %45,1ek ez dute halakorik izan. Hurbileko pertsonen zaintza-beharrari dagokionez, erdiak baino pixka bat gehiagok (%50,7) diote zaintza edo laguntza behar duen senide edo pertsona hurbil bat dutela, eta %42,3k ez dutela halakorik; gainerako erantzunak “beste” edo “ez erantzuna” dira. Norberaren kasuan, parte-hartzaileen %15,5ek adierazi dute laguntza edo zaintza behar dutela, eta %81,7k ez dutela halakorik behar dela sentitzen; gutxiengo txiki batek ez du galdera horri erantzun edo “beste” aukera markatu du.

Administrazio publikoak, komunitatea eta familiak zaintzari aurre egiteko prest dauden neurria ere baloratu da. Administrazio publikoen kasuan, erantzunen %69,0ek “Ez” markatu dute, eta %15,5ek “Bai”; gainerakoetan, “beste” erantzunak edo “ez dakit” ageri dira. Komunitateari dagokionez, %57,8k uste dute komunitatea ez dagoela behar bezala prestatuta, eta %22,5ek “Bai” erantzun dute; gainerako erantzunak bitarteko posizioetan edo

“ez dakit” kategorian kokatzen dira. Familiak zaintzari aurre egiteko duen gaitasunari buruz, %45,1ek “Ez” erantzun dute, %32,4k “Bai” eta gainerako erantzunak “beste” edo “ez dakit” bezala ageri dira.

Udalaren papera eta udal-politiken orientazioa modu espezifikoan jaso dira. “Anoetako udalak gaur egungo zaintza beharrei erantzuten al die?” galderari erantzunez, %43,7k “Ez” markatu dute, %11,3k “Bai”, eta gainerako erantzunak “beste” edo “ez dakit” kategoriatan banatzen dira. Udal-politikoek pertsonen premia eta zaintza erdigunean jartzen dituzten ala ez baloratzeari, %47,9k “Ez” erantzun dute, eta %42,3k “Bai”; gainerakoek ez dakitela edo erantzunik ez ematea hautatu dute. Aldiz, zaintza-beharrak ikuspegi publiko-komunitariotik landu beharko liratekeen galdetxean, erantzunen %91,6k “Bai” markatu dute, eta oso gutxi “Ez” edo “ez dakit”; hau da, ia adostasun zabala dago ikuspegi publiko-komunitarioaren alde. “Anoeta zaintza erdigunean jartzen duen herria dela” galderan, parte-hartzaileen %46,5ek ados daude, %35,2k ez, eta gainerakoak ez daude ziur edo ez dute erantzun.

Komunitatearen papera eta sentsibilizazio maila baloratzeko, 0tik 10erako eskala erabili da herritarren zaintzarekiko sentsibilizazioari buruzko galderan. Batez besteko balioa 6,2 puntukoa da, eta erantzunak batez ere 5–7 puntuen tartean pilatzen dira: %25,4k 7 puntu ematen du, %23,9k 6 puntu eta %21,1ek 5 puntu. 8 puntu edo gehiago ematen dutenen artean, %9,9k 8 puntu eta portzentaje txikiago batek 9 edo 10 puntuko balorazioa ematen du; erantzun gutxi batzuk 4 puntu edo gutxiagoko tartean daude.

Zaintzarekin lotutako auzo edo komunitate ekimenak ezagutzen ote diren galdetxean, erantzunak oso parekatuta agertzen dira: %49,3k dio ez duela halakorik ezagutzen, eta %46,5ek bai ezagutzen duela; gainerako erantzunak “beste bat” edo “ez erantzuna” dira. Ekimen horietan inoiz parte hartu ote den galdetuta, parte-hartzaileen %74,6k ez dutela parte hartu adierazten dute, %18,3k bai parte hartu dutela, eta gainontzekoen erantzunak “beste bat” edo “ez erantzuna” kategoriarekin lotzen dira.

Familiatik kanpoko pertsonaren bat zaindu ote den galdetxean, %52,1ek “Bai” erantzun dute, eta %45,1ek “Ez”; kopuru txiki batek ez du erantzunik eman. Azkenik, “Anoetan Zaintza Sarea behar dela” ados dauden ala ez galdetxean, parte-hartzaileen %91,6k “Bai” markatzen dute, eta %4,2k “Ez”; gainerakoak “ez dakit” edo erantzun gabe geratzen dira. Zaintza sare horretan parte hartzeko prestutasunari buruz, %69,0ek adierazi dute gustatuko litzaiekeela bertan

parte hartzea, %23,9k ez luketela parte hartu nahi, eta gainerako erantzunak “ez erantzuna” gisa jasotzen dira.

Atal honek, beraz, galdetegiaren emaitzen egitura orokorra eskaintzen du: nork erantzun duen, nola baloratzen duten zaintza, zein puntutaraino bizi dituzten gertutik zaintza-esperientziak eta zaintza-beharrak, eta nola ikusten dituzten administrazioa, komunitatea eta familia zaintza-sistemaren eragile gisa. 7. atalean, datu kuantitatibo hauek elkarriketetan jasotako informazio kualitatiboarekin gurutzatuz aztertuko dira.

6.2. Elkarriketetako testigantza nagusiak: esferen arabera

Atal honetan bost esferetan jasotako diskurtso kualitatiboak uztartzen dira: esfera publikoa, pribatua, komunitarioa, zaintzaileen esfera eta zainduen esfera. Aurreko ataletan dimentsio bakoitza banaka azertu bada ere (zaintzaren ulkerak, politika publikoak, komunitatea, zaintza-sarearen antolaketa), hemen ikuspegi horiek esferaren arabera antolatuta ageri dira. Horrela, agerian geratzen da nola kokatzen den esferaren bakoitza zaintza-sistemaren barneko posizio jakin batean eta nola txertatzen diren eguneroko bizipenak eta botere-harremanak diskurtsoetan.

6.2.1. Esfera publikoaren errealitatea

TESTIGANTZA AZPIMARRAGARRIA

“Zaintza eskubide bat da, baina gaur egun askotan larrialdiak kudeatzea besterik ez dugu egiten, ez sistematikoki zaintzea.”

Esfera publikoan bildutako diskurtsoek zaintza, lehenik eta behin, eskubide sozial gisa kokatzen dute, baina eskubide hori eguneroko praktikan nola gauzatzen den aztertzean agerian geratzen da desoreka sistemikoa: eskubidea formalki aitortua egon arren, baliabideen antolaketa, prozeduren zurruntasuna eta koordinazio faltak etengabe agertzen dira muga gisa.

Gizarte zerbitzuetako elkarriketetan argi sumatzen da ikuspegi instituzionalagoa: zaintza «bizi-ziklo osoa» zeharkatzen duen fenomeno dela azpimarratzen da, eta horrek, printzipioz, administrazioaren esku hartze progresiboa eta integrala eskatuko luke. Hala ere, profesionalek deskribatzen dute nola eskariak pilatzen diren, nola luzatzen diren balorazio-prozesuak, eta nola iristen diren beraiegana jada oso korapilatuak diren egoerak.

Diskurtsoetan ia topiko bihurtuta agertzen den esaldia da protokoloak «oso motelak» direla eta baliabideak «oso mugatuak». Horrek ez du soilik “zerbitzu gutxi” daudela adierazten: erakusten du egungo antolaketa-ereduek ez dutela egoki erantzuten zaintza-beharren konplexutasun gero eta handiagoari.

Bereizgarri da profesionalen diskurtsoan agertzen den autokontzientzia eta «burnout» arriskuaren presentzia. Elkarrizketa batean, gizarte langile batek aitortzen du bere aitari zaintzen dionean, lanetik kanpoko zaintza ere bere gain erortzen zaiola, eta esaldi batekin laburbiltzen du dilema hori: «ni nere buruaz ez baldin banago ondo ez nago ezertarako». Honek erakusten du esfera publikoa ez dela neutroa: bertako profesionalak ere zaintza-sistemaren barneko subjektu zaurgarriak dira, ez bakarrik «hornitzaile» aseptikoak.

Generoaren ikuspegitik, esfera publikoak modu esplizituan aitortzen du zaintzaren banaketa desorekatu historikoa. Gizarte zerbitzuetako eta komunitate osasuneko diskurtsoetan errepikatu egiten da ideia bera: zaintza lan gehienak emakumeek egiten dituzte, eta gero eta maizago emakume migratuek. Anbulategiko profesionalak zaintzaren definizioa ematean dio: «cuidar es estar, acompañar y resolver problemas... más allá de lo sanitario», eta jarraian erreibindikatzen du «rol hori, askotan, ez dela agertzen protokoloetan, baina funtsezkoa» dela. Hau da: esfera publikoak zaintza-ikuspegia zabaltzen du, baina berak mantentzen ditu, aldi berean, zaintza lanen desbalorizazio eta feminizazio egituratuak.

Ikuspegi instituzionaletik beste tentsio bat ere agertzen da: eskala eta hizkuntza. Tokiko administrazioak (udala) eguneroko harremanean dago herritarrekin, baina politika askoren markoa foru edo autonomiko mailan dago definitua. Udal langileen elkarrizketan, hori modu sotilean azaltzen da: ardura handia sentitzen dute, baina askotan arau eta aurrekontu marko estuen pean lan egiten dute. Honek eskala arteko tentsio bat sortzen du: herritarrek udalaren ate aurrean kokatzen dituzte itxaropen asko, baina udalak ez du beti eskumen eta baliabide nahikorik, eta horrek frustrazioa dakarkio bai herritarrari bai profesionalari.

Aldi berean, esfera publikoan ez da soilik defentsa diskurtso bat agertzen. «Zaintza beharrei erantzuteko ardura... guztiona, gizartearena» esaten denean, argi dago erantzukidetasun-ikuspegia partekatzen dutela: zaintza ez da familia pribatuan edo instituzioan soilik kokatzen; dimentsio sozial, komunitario eta politikoa du. Hori bat dator galdetegian ikusi denarekin:

herritar gehienek zaintza kolektiboa eta komunitarioa desiragarritzat jotzen dute, baina ez dute argi nola antolatu beharko litzatekeen.

Laburbilduz, esfera publikoaren errealitateak agerian uzten du zaintza eskubide gisa aitortuta egon arren, bere praktika egunerokoan gatazka- eta muga-sarea dela: baliabide urritasuna, burokrazia, koordinazio-arazoak, desoreka emozionala eta lan-baldintza prekarioak batzen dira. Horregatik, zaintza-sare publiko-komunitario baten diseinua ezin da ulertu esfera honetako ahotsak eta kontraesanak kontuan hartu gabe.

9. Taula. Esfera Publikoa – Zita esanguratsuak

Ideia nagusia	Zitak (adibide adierazgarriak)
Zaintza bizitzaren ziklo osoan eta egunerokoan presente	<i>"Jaio zenetik eta hil arte, une oro gaude elkar zaintzen, modu batean edo bestean."</i> <i>"Zaintzak egunerokoan gertatzen diren gauza txiki asko dira, baina ondorio handiak dituztenak."</i>
Zaintza eskubide sozial eta politika publiko gisa	<i>"Azken finean, zaintza eskubide sozial bat izan beharko litzateke, ez familiaren borondate hutsean oinarritutako zerbait."</i> <i>"Gu hemen gaude eskubide horri egitura ematen saiatzen, baina markoa estutua da."</i>
Baliabide mugatuak eta prozedura motelak	<i>"Eskariak asko dira eta protokoloak oso motelak; askotan iristen gara berandu."</i> <i>"Baliabideak ez dira nahikoa, eta lehentasunak markatzera behartuta gaude, gustuko ez dugun moduan."</i>
Prestutasuna vs egitura falta	<i>"Herriko beharrak ezagutzen ditugu, baina ez dugu beti tresna nahikorik modu duin batean erantzuteko."</i> <i>"Askotan, prestutasun falta ez, baizik eta egitura eta denbora falta da oztopoa."</i>
Genero-desoreka eta zaintza feminizatua	<i>"Praktikan, oraindik ere emakumeak agertzen dira zaintzaren lehen lerroan, paperean berdintasuna aipatu arren."</i> <i>"Gizon batzuk gehiago inplikatzeko hasi dira, baina egiturazko inertziak oso sendoak dira."</i>
Zaintza lanen etnizazioa	<i>"Zaintza lan askoren atzean emakume migratuak daude, baldintza gogorretan sarritan."</i> <i>"Guk ikusten duguna da zaintza kate global horiek herri txiki honetara ere iristen direla."</i>
Profesionalen zaurgarritasuna eta neke emozionala	<i>"Ni nere buruaz ez baldin banago ondo, ez nago ezertarako; baina ez dugu hori lantzeko tarte handirik."</i> <i>"Batzuetan, lana etxera eramaten dugu buruan, eta horrek ere badauka kostua."</i>
Ardura partekatua eta gizarte osoaren rola	<i>"Zaintza beharrei erantzuteko ardura ez da Udalena bakarrik, gizarte osoarena da."</i> <i>"Guk ezin dugu dena hartu geure gain; komunitateak eta familiek ere lekua behar dute, baina baldintza duinetan."</i>
Zaintza osasunetik harago: harremanak eta egunerokoa	<i>"Kontsultan ikusten dudana ez da soilik gaitza; bakardadea, beldurra eta eguneroko konpondu gabeko kezkak ere badaude."</i> <i>"Cuidar para mí es estar, acompañar y resolver problemas del día a día, ez bakarrik errezeta ematea."</i>

6.2.2. Esfera pribatua edo zerbitzu hornitzaileen esferaren errealitatea

TESTIGANTZA AZPIMARRAGARRIA



“Etxean egiten den zaintza ez da inon apuntatzen, baina horretan pasatzen dugu bizitzaren zati handiena.”

Esfera pribatuan jasotako diskurtsoek zaintza eguneroko bizitzaren ehunean txertatutako esperientzia gisa erakusten dute. Ez da kontzeptu abstraktu bat; denborarekin, espazioarekin eta harreman afektiboekin lotutako praktika multzo bat da. Zaintzen definizioa ematerakoan, elkarrizketatu batek sintetizatzen du: presentzia, akonpainamendua eta ulermena, «besteak zer motatako beharra duen laguntzea». Hori guztia gertatzen da etxeko espazioan, intimitatean, eta sarritan, administrazioaren edo beste eragileen begietatik kanpo.

Diskurtso horietan funtsezkoa da naturalizazio prozesua. Zaintza askotan deskribatzen da “betidanik hor egon den zerbait” bezala, eta hori bereziki nabaria da emakumeen kasuan. “Orain arte, emakumeak izan dira haurren, norbanakoaren eta adinekoen zaintzaz arduratu direnak” dioen pasarteak erakusten du zaintza ez dela soilik banaketa desorekatua: identitate femeninoaren parte bihurtu da. Hori arriskutsua da ikuspuntu politikotik, zaintza-lanak doako, ikusezin eta automatikotzat jotzeko joera elikatzen duelako.

Genero-rolen dimentsioa lotuta doa espazioaren erabilerarekin. Esfera pribatuan aipatzen da gizonezkoak historikoki espazio publikoetara gehiago irten izan direla, eta ondorioz «emakume asko etxean ikusten direla, bakardade egoeran orain». Etxea babeseta zaintza gunea izan beharko litzateke, baina zaintza gaizki banatzen denean isolamenduaren eta gaitzaren eszenatoki bihurtzen da. Horrek uztartu egiten du mendekotasun-egoerak, generoa eta klasea: etxe barruko zaintza intentsiboak askotan ez du truke ekonomikorik, eta, ordea, bizitza osoaren antolaketa baldintzatzen du.

Esfera pribatuan politika publikoekin eta gizarte zerbitzuekin dagoen harremana distantzia eta ezjakintasun sentazio batek markatzen du. Elkarrizketetan adierazten da gizarte zerbitzuak «iha toki guztietan nahiko desbordatuta» daudela, eta sarritan entzuten da «badakit badirela laguntzak, baina ez dakit ondo nola funtzionatzen duten». Honek bi gauza adierazten ditu: batetik, administrazioaren egiturazko muga (desbordatze eta burokrazia sentipena); bestetik, informazioaren eta sarbidearen desorekak. Zaintza pribatua are gehiago

biziagotzen da, sistemak bermatzen ez dituen beharrak etxe barruan «birsortzen» direlako emakumeen lan ikusezinaren bidez.

Komunitatearekiko harremanak ere badu bere bilakaera. Elkarrizketatu batzuek gogoratzen dute bere garaian «bizilagunen artean, seme-alabak zaintzeko joera» zegoela, eta gaur egun horrek behera egin duela. Ez da soilik nostalgia; egungo antolaketa sozialak (erritmo azkarragoak, mugikortasun handiagoa, banakoaren indibidualizazioa) zaintza modu kolektiboan antolatzeko aukerak murriztu ditu. Horrek esan nahi du gaur egun zaintza-lanen zama gehiago pilatzen dela familia nukleoan, eta bereziki norbanako emakumeengan (alabak, ama bakarrak, emazteak...).

Esfera pribatuan, hala ere, ez da agertzen soilik diagnostikoa; baita transformazio-desira ere. Proposatzen da adinekoekin eta herritar taldeekin elkarrizketak egitea, zaintzari buruz «zer behar duten» eurek esateko. Horrek subjektu pasiboaren irudia hautsi eta ahots legitimo gisa kokatzen ditu pribatutasunean bizi diren pertsonak. Aldi berean, aitortzen da herria «orokorrean, oraindik ez» dagoela prest zaintza-eredu berriak barneratzeko; horrek erakusten du balio-ereduak eta ohiturak aldatzeko prozesua luzerako izango dela, eta gatazka eta negoziazioak ekarriko dituela.

10. Taula. Esfera Pribatua – Zita esanguratsuak

Ideia nagusia	Zitak (adibide adierazgarriak)
Etxeko zaintza: presentzia, laguntza eta ulermena	<i>“Zaintzea da presente egotea, besteak behar duena entzutea eta ahal dugun neurrian erantzutea.</i> <i>“Batzuetan nahikoa da norbaiten ondoan esertzea eta entzutea; hori ere zaintza da niretzat.”</i>
Zaintzaren naturalizazioa eta ikusezintasuna	<i>“Etxean beti egon da zaintza; ez dugu pentsatu ere egiten nork egiten duen, baina norbaitek egin behar du.”</i> <i>“Askotan, egiten den guztia ‘normaltzat’ hartzen da, eta ez zaio baliorik ematen, soilik ez denean egiten nabaritzen da.”</i>
Genero-rolak eta espazioen banaketa	<i>“Gizonezkoak gehiago atera dira beti kanpora, eta etxea eta zaintza gure gain gelditu dira.”</i> <i>“Orain ere, lan egiten dugun arren, etxeko ardura gehienak guregan jarraitzen dute.”</i>
Zaintza pilaketa bizitzaren erdigunean	<i>“Lanetik etxera etortzen zara eta bigarren txanda hasten da: umeak, etxea, gurasoak...”</i> <i>“Momenturen batean ohartzen zara ez duzula zuk zaintzarik jasotzen, beti zaudela besteak antolatzen.”</i>
Gizarte zerbitzuekiko distantzia eta mesfidantza	<i>“Badakit gizarte zerbitzuak hor daudela, baina iruditzen zait beti lepo gainean daudela eta kostatzen dela hurbiltzea.”</i> <i>“Sarritan entzun dut: ‘hori asko kostatzen da lortzea, paper asko eta buelta asko’.”</i>
Zaintza moten ezjakintasuna	<i>“Gaixorik gaudenean badakigu anbulatoriora joan behar dugula; beste zaintza mota batzuei buruz ez dakigu ia ezer.”</i> <i>“Laguntza ekonomiko edo sozialez hitz egiten denean, jende asko galduta dago: ez daki zer dagoen, ez nola eskatu.”</i>
Auzotasunaren bilakaera: lehen vs orain	<i>“Lehen bizilagunek zaintzen zuten elkar; umeak batetik bestera ibiltzen ziren eta denek begiratzen zuten.”</i> <i>“Orain, jende askok ez daki nor bizi den pareko atarian ere; atea itxi eta bakoitza bere munduan geratzen da.”</i>
Elkarriketa eta hausnarketa kolektiboaren beharra	<i>“Uste dut garrantzitsua dela adinekoei zuzenean galdetzea zer zaintza behar duten eta nola zaindu nahi duten.”</i> <i>“Herri mailan gehiago hitz egin beharko genuke gai honetaz, tabutatik atera eta normaltasunez.”</i>
Eredu berriekiko erresistentzia eta beldurra	<i>“Herri bezala ez gaude oraindik prestatuta beste zaintza eredu bat imajinatzen hasteko.”</i> <i>“Aldatzeko borondatea egon daiteke, baina beldurra ere bai: ‘orain artekoak funtzionatu badu, zertan sartu beste kontuetan?’.”</i>

6.2.3. Esfera komunitarioaren errealitatea

TESTIGANTZA AZPIMARRAGARRIA



“Jende asko botikak hartzera dator, baina benetan behar duena da norbaitek entzutea eta galdetzea nola dagoen.”

Esfera komunitarioan farmazialariak, denda txikietako arduradunek, elikagaien bankuko boluntarioek eta kultur/kirol egituretako kideek hartzen dute hitza. Haien diskurtsoek agerian uzten dute komunitatea dela, askotan, zaintza ikusezinaren lehen lerroa: ez dago kontraturik, ez protokolo formalik, baina eguneroko harremanetan detektatzen dira bakardade egoerak, ahultasunak eta laguntza beharrak.

Farmazian, adibidez, zaintza “profesioaren” mugetatik harago ulertzen da. Bezeroak botikak hartzera doaz, baina sarritan “deskargatzera” ere bai: «las pacientes vienen a algo en concreto, baina gero hitz egin behar izaten dute; jendea hemen deskargatzen da». Botika emateaz gain, entzuteko eta laguntzeko espazio bat bihurtzen da farmazia. Horrek erakusten du zaintza komunitarioa ez dela soilik ekintza materialetan (erosketak, tramitetan laguntzea...) gertatzen; dimentsio emozional eta sozial oso indartsua du.

Merkataritzako elkarriketetan zaintza ulertzeko modua lotuta doa menpekotasunari eta etorkizuneko beharrei: «gero eta gehiago kezkatzen nauen gaia da zaintza... ze behar izango ditut hemendik urte batzuetara?». Honek erakusten du komunitateko eragileak ez direla soilik “besteren zaintzaz” hitz egiten ari; beraien zahartzaroa eta mendekotasun posiblea ere islatu egiten dute diskurtsoetan. Zaintza komunitarioaren aldeko konpromisoa eta bere mugen kontzientzia uztartzen dituzte.

Esfera komunitarioaren ahots nagusietako bat da indibidualismoaren kritika. Auzoko harremanen ahultzea, portaletako jendearen arteko ezezagutza eta “yo, mi, me, conmigo” logika aipatzen dira. Adibidez: «bizilagunek ez dakite ezta nor bizi dan parean... gizartea gero eta indibidualagoa da». Horrek galdetegian agertzen zen pertzepzioa berresten du: herritarrek komunitatea garrantzitsutzat jotzen badute ere, ez dute sentitzen gaur egungo egiturek zaintza modu kolektiboan antolatzeke gaitasun nahikorik dutenik.

Alabaina, komunitatearen esferan ez da diskurtso nostalgiko hutsa nagusitzen. Egitura berrien beharra aipatzen da: zaintza ez dadin geratu norbanako boluntarioen eta “borondate onaren” esku bakarrik. Esaten da ezin dela dena «aita estatuaren» kontura utzi, baina ezin dela dena

“denda, farmazia edo elkarte bakar baten” bizkar ere utzi. Horregatik, koordainazio publiko-komunitarioaren premia azpimarratzen da: nork detektatzen du, nork eramaten du informazioa gizarte zerbitzuetara, nork sostengatzen du zaintzaileen nekea, eta nola aitortzen da komunitateak egiten duen lana.

Diskurtso oso interesgarria da zaintza komunitarioa “gauza errazetan” oinarritu behar dela defendatzen duena: «tiene que ser algo fácil... cosas pequeñas», “sembrar” metaforarekin lotuta. Honek esan nahi du proposamen eraginkor asko ez direla zertan proiektu handiak izan; eguneroko ohitura txikien aldaketan eta harremanen zaintzan dute indarra. Horrekin batera, komunitateko kide batek gogorarazten du «zaintzaileen zaintza» ere funtsezkoa dela: «cansa mucho cuidar... los cuidados son caros». Beraz, komunitatearen esferak ez du bakarrik zainduen ahultasuna ikusten; zaintzaileak ere zaintzaren subjektu gisa kokatzen ditu.

Azkenik, esfera komunitarioak erakusten du herri txiki batean kohesio soziala oraindik ere indartsua izan daitekeela: abesbatzako kide batek dio taldean aritzeak “betetzen” duela, eta “oso bilduta” daudela. Baina kohesio hori ez da automatikoki zaintza antolatu bihurtzen: horretarako, egitura, espazio eta ardura banaketa esplizituagoa behar dira.

11. Taula. Esfera Komunitarioa	
Ideia nagusia	Zitak (adibide adierazgarriak)
Zaintza komunitarioa: adinekoak, bakardadea eta ahultasuna	<i>“Persona mayor, soledad, enfermedad, vulnerabilidad. Acompañamiento.”</i> <i>“Nik zaintzat hartzen dut gure dendara etortzen den pertsona horri begiratzea ea gaur beste aurpegi batekin datorren.”</i>
Farmazia eta denda txikiak entzute eta konfiantza espazio gisa	<i>“Las pacientes vienen a algo en concreto, pero luego necesitan hablar; la gente se desahoga aquí.”</i> <i>“Guk ez dugu terapia egiten, baina askotan ateratzen dira arinago hemendik, norbaitek entzun dielako.”</i>
Zaintzaz hausnartzen duen komunitatea, bere etorkizuna islatuz	<i>“Gero eta gehiago kezkatzen nauen gaia da zaintza; gaur laguntzen dudana horretan nire etorkizuna ere ikusten dut.”</i> <i>“Pentsatzen dut: ‘eta ni hemen lanean ez nagoenean, nork lagunduko dit ni?’.”</i>
Indibidualismoa eta auzo-harremanen apurketa	<i>“Lehen kalean gehiago geratzen ginen, jendea ezagutzen zenuen; orain bakoitza presaka doa.”</i> <i>“Bere garaian, jende gehiago mugitzen ginen. Gaur egun, jendeak ez du denborarik, berera doa edo ez du albokoa ezagutzeko tarterik.”</i>
Ardura partekatua: estatua eta komunitatea	<i>“No podemos dejar todo a ‘papá estado’, nosotras también tenemos responsabilidad.”</i> <i>“Administrazioak berea egin behar du, baina herri bezala ere ezin gara besoak gurutzatuta geratu.”</i>
“Gauza txikiak”: ekintza errazak eta ohitura aldaketak	<i>“Tiene que ser algo fácil... que hagas costitas pequeñas, es sembrar para ti también.”</i> <i>“Askotan nahikoa da norbaitek galdegitea ‘zer moduz zaude?’ eta egiaz entzutea erantzuna.”</i>
Zaintzaileen zaintza komunitatearen ikuspegitik	<i>“Es muy importante cuidar de las cuidadoras... cansa mucho cuidarla.”</i> <i>“Boluntarioak ere nekatu egiten dira; ezin da dena beti pertsona beraren gain erori.”</i>
Parte-hartzeko oztopoak: denbora falta eta “beti berdinak”	<i>“Gustatuko litzaidake parte hartzea, baina ez dut denborarik.”</i> <i>“Betik berdinak dira, gutxi, eta normalean badakigu nortzuk diren. Baina gainontzekoak ez badugu erantzuten, alperrik.”</i>
Zaintza larrialdi gisa ulertzea eta fokalizazioa	<i>“Zaintza urgentziatzeko egoera bat bezala ulertzen degu, eta ekintza asko pertsona konkretu batzuk babesteko egiten dira.”</i> <i>“Kostatzen zaigu denon artean zaintzeko logika horretara pasatzea, ez soilik ‘kasu jakin’ batzuetara.”</i>
Koordinazio faltaren ondorioak	<i>“Borondatea badagoen arren, koordinazio faltagatik ez dira gauzak ateratzen.”</i> <i>“Laguntzen dugu, baina batzuetan ez dakigu nora bideratu egoera jakin bat, eta hortik galdu egiten da indarra.”</i>

6.2.4. Zaintzaileen esferaren errealitatea

TESTIGANTZA AZPIMARRAGARRIA

“*Fisiko eta emozionalki jaten zaitu; maite duzulako egiten duzu, baina batzuetan ez dakizu nor ari den gehiago hondatzen, zaintzen ari zaren pertsona ala zu zeu.*”

Zaintzaileen esferak zaintza-sistemaren muina agerian uzten du: zaintza formala zein informala egiten duten pertsonen gorputzetan eta bizitzetan pilatzen diren tentsioak. Elkarrizketetan, zaintzaile batek dio: «yo entiendo, cuidar sobre todo a una persona que ya no vale por sí misma, entonces necesita ya una ayuda». Definizio horrek zaintza, autonomia galdua duen pertsona baten inguruan antolatzen den erlazio asimetriko gisa aurkezten du: zaintzaileak bere denbora, gorputza eta arreta beste baten esku jartzen ditu, askotan konpentsazio ekonomiko eskasarekin eta aitortza sozial urriarekin.

Diskurtsoetan behin eta berriz agertzen da zaintzak «bi aldeetan» duela inpaktua: zainduan eta zaintzailearengan. «Creo que impacta... en ambas» esaldia ez da iritzi generiko bat; atzetik datoz adibiderik sutsuenak: bizkarreko min kronikoa, lo faltak, antsietatea, errua (ez dela nahikoa egiten sentitzeagatik), eta etorkizunari buruzko ziurgabetasuna. Zaintzaile batek kontatzen du 14 urte daramatzala lan honetan, eta horrela laburbiltzen du: «ya voy para 14 años trabajando en eso. Son muchos años». Denbora horrek ez du soilik esperientzia metatzen; nekearen sedimentazioa ere bada.

Zaintza-lanaren antolaketa-ereduek egoera hori areagotzen dute. Elkarrizketa batean azaltzen da nola lan egiten duen 24 orduz, eta «solamente tengo dos horas diario» dioenean, agerian uzten du barneko zaintza ereduek denbora propioaren desagerpena dakartela. Gauetan «begi bat itxita eta bestea zabalik» egotea deskribatzen du, edozein momentutan esnatu eta erantzun behar izateko prest. Horrelako baldintzek berekin dakarte ongizate emozionalaren higadura eta, luzera begira, osasun arazo larriak izateko arriskua.

Zaintzaren zentzua, hala ere, oso presente dago. «Mi vida para cuidar la vida de otra persona» esaldiak dimentsio afektibo eta etiko sendoa du: zaintzailea ez da bere burua biktima gisa bakarrik kokatzen; badaki egiten duen lanak beste baten bizitza duinago egiten duela, eta horretan aurkitzen du zentzua. Baina balio pertsonal hori ez da nahikoa lan-baldintza duinik gabe: soldadak, atsedenaldiak, prestakuntza eta babes psikosoziala ezinbestekoak dira. Bestela, “bokazioaren” diskurtsoak justifikatu dezake prekariedade estrukturala.

Zaintzaileen esferak, beraz, azaleratzen du zaintza-sare publiko-komunitarioaren diseinuan lan-harremanen dimentsioa txertatzearen premia. Zaintza ez da soilik «familiaren kontua» edo «komunitatearen konpromisoa»; lan baldintzak dituen jarduera bat ere bada. Elkarriketetan entzuten da zaintza erabiltzen den etxebizitzan barruan familia batzuek «oso jende ona» direla eta babesa ematen diotela zaintzaileari; baina hori ezin da eredu sistemiko baten ordezkari jarri. Zaintzaileen eskubideak bermatzeko politikek lan-arloko ikuspegia eta zaintza-politikak uztartu behar dituzte, eta horren aldeko azarnak ikusten dira diskurtsoetan: «gustatuko litzaidake gehiago begiratzea gure lan-baldintzak, ez bakarrik zaindu behar dugun pertsonaren egoera».

12. Taula. Zaintzaileen esfera	
Idea nagusia	Zitak (adibide adierazgarriak)
Zaintzaren definizioa: gorputza eta denbora bestearen zerbitzura	<i>"Cuidar es estar con una persona que ya no puede sola y poner tu cuerpo para suplir lo que ya no llega."</i> <i>"Beste baten egunerokoa sostengatzea da, bera bakarrik ezin duenean."</i>
Zaintzak bi aldeetan duen inpaktua	<i>"Impacta en las dos partes; si yo no estoy bien, ella tampoco está bien."</i> <i>"Zaintzen dudana pertsonaren aldartea nirea ere bada neurri handi batean."</i>
Esperientziaren luzera eta arrastoa	<i>"14 urte daramatzat honetan; urteak pasa ahala gorputzak eta buruak ere ordaintzen dute."</i> <i>"Hasieran ez zara konturatzen, baina denborarekin ikusten duzu zure bizitza ere hor kokatu dela."</i>
24 orduko lan-ereduak eta atseden falta	<i>"Como yo trabajo 24 horas, solamente tengo dos horas diario; y esas horas a veces solo quiero dormir."</i> <i>"Txandean ordez, batzuetan beti 'de guardia' zaudela ematen du, baita atseden teorikoan zaudenean ere."</i>
Alertan bizitzaren tentsioa	<i>"Tú no puedes dormir... un ojo cerrado y otro abierto, por si pasa algo."</i> <i>"Gauean ere entzuten duzu zein mugitzen den korridorean, eta berehala jaikitzen zara."</i>
Dimentsio fisiko eta emozional metatua	<i>"Es de algo físico y emocional. Junta todo, ¿no? El cansancio del cuerpo y de la cabeza."</i> <i>"Batzuetan negar egin nahi duzu, baina ez dago tarterik; egin behar da."</i>
Zaintzaren zentzua eta kontraesanak	<i>"Mi vida para cuidar la vida de otra persona; ahora mi prioridad es ella."</i> <i>"Badakit egiten dudanak zentzua duela, baina batzuetan galdetzen diot nire buruari non gelditzen naizen ni."</i>
Lan-baldintzen eta aitortzaren aldarrikapena	<i>"Gustatuko litzaidake gehiago ikustea gure lan-baldintzak, ez bakarrik zaintzen dugun pertsonaren egoera."</i> <i>"Askotan 'etxeko neskatzat' ikusten gaituzte, ez profesional gisa."</i>
Zaintzaileen zaintza: arnasa eta sostengua	<i>"También necesitamos que alguien nos cuide a nosotras; si no, ezinezkoa da urte luzez horrela jarraitzea."</i> <i>"Atseden egun bat izatea pribilegio bat dirudi eta ez eskubide bat."</i>

6.2.5. Zainduen esferaren errealitatea

TESTIGANTZA AZPIMARRAGARRIA

“Ez naiz orain gaizki sentitzen, baina gauetan burura etortzen zait galdera bera: ‘eta ni ezin naizenean moldatu, zer?’”

Zainduen esferan (Ttipi-Ttapako erabiltzaileak, gehien-gehienak emakume adinekoak) zaintza definizioa ez da kontzeptu teoriko bat; etorkizunarekiko beldurra, eguneroko bakardadea eta informazio faltak markatzen dute. Elkarriketak irekitzen direnean, lehen esaldi multzoan agertzen dira gako guztiak: nola egongo diren, nork zainduko dituen, «que no me lleven a ningún asilo» eta «que cuando pidas ayuda, no tarden». Hemen zaintza ez da soilik «laguntza»; kontrolaren eta duintasunaren arteko negoziazioa da.

Bakardadea gai errepikakorra da. «La soledad; casi todas somos viudas. Nos reunimos nosotras...» esaldian jasotzen den moduan, zaintza-sare ez formalen zati handi bat beraien artean sortzen dute, elkarrekin egoteko espazioen bidez. Ttipi-Ttapa bera autozainketa eta elkar-zaintza espazio bat bihurtzen da: bertan egiten dituzte lagunak, jarduera txikiak, eta “herriaren parte sentitzeko” aukera berreskuratzen dute. Hala ere, talde horiek ez dira beti guztientzat irisgarriak: «no todo el mundo es aceptado en una asociación» esaldia gogorra da, eta erakusten du inklusio sozialak badituela baldintza ez esplizituak (harreman sareak, aurreiritziak, hizkuntza, klasea...).

Zaintza formalaren eta familiaren arteko harremanean, injustizia sentipena agertzen da: «no puedo subir el brazo y necesito ayuda para limpiar; pero si tienes un hijo en casa, no te dan la ayuda». Politika publikoak, kasu honetan, familia egitura idealizatu baten hipotesian oinarritzen dira: seme-alabak etxean egotea zaintza bermearen sinonimotzat hartzen da, eta horrek ukatu egiten dizkie laguntzak benetan autonomiarik ez duten eta, praktikan, laguntzarik jasotzen ez duten pertsona askori. Zaintzaren ikuspegi moralizatzaile batek (seme-alabek zaindu behar dute) estaltzen du egitura sozioekonomiko eta emozionalen konplexutasuna.

Informazio eta sarbide faltak ere pisu handia dute zainduen diskurtsoetan. «Desconozco la asistencia social que dan desde el ayuntamiento... es mi fallo por no haberme acercado» esateak norberaren erru sentipena azaleratzen du, baina, ikuspegi kritiko batetik, erakusten

du administrazioak ez duela informazioa modu proaktibo eta ulergarrian zabaltzen. Horregatik, proposamenetako bat oso zehatza da: «un punto de información que nos dé respuestas sencillas». Ez da soilik bulego gehiago izatea; baizik eta ate bakarreko sarbide argi bat, paperen, tramiteen eta “pasabideen” labirintoan galdu gabe.

Egoitza edo “asilora” joatearen fantasma ere oso presente dago. Parte-hartzaile batek dioenez, «yo la residencia por ahora me resisto, pero es la ‘única’ solución que se nos plantea. No hay otra. Además, que son muy caras...». Zaintza-eredu nagusiaren iruditeriak binomio konplexu bat eskaintzen die: familia edo egoitza, tarteko aukerarik gabe. Zaintza-sare publiko-komunitarioaren proposamenak, beraz, testuinguru honetan hartzen du zentzu osoa: eredu binario hori apurtu eta tarteko formak (eguneko zentro komunitarioak, laguntza sare mistoak, etxer etxeko zaintza komunitarioagoak...) imajinatzeko aukera emango luke.

Bestalde, herriaren eta komunitatearen pertzepzioa ez da negatiboa. Adierazten da «oso zainduak sentitzen direla herrian zehar; konfiantza oso handia dagoela inguruan». Kalean agurtzea, dendara jaistea, osasun zentrora joatea... horiek guztiak mikro-zaintza moduak dira, eta zainduak balio handia ematen diete. Kontraste interesgarria agertzen da hemen: eguneroko harreman horiek oso baloratuak dira, baina, aldi berean, herritar gazteen artean ez direla modu berean errepikatzen esaten da; horrek zaintza komunitarioaren etorkizunari buruzko galderak irekitzen ditu.

Laburbilduz, zainduen esferak zaintza-sistemaren ikuspegi pribilegiatua eskaintzen du: handik ikusten dira politika publikoen ondorio zehatzak, familiaren egoera errealak, bakardadearen anatomia eta komunitatearen potentziala. Haien ahotsa txertatzea ezinbestekoa da zaintza-eskubidea ez paperean bakarrik, baizik eta bizipenean ere bermatuko duten ereduak diseinatzeko.

13. Taula. Zainduen esfera

Ideia nagusia	Zitak (adibide adierazgarriak)
Etorkizunarekiko beldurra eta ziurgabetasuna	<i>“¿Quién me va a cuidar? Ese es mi miedo.”</i> <i>“Ez naiz orain gaizki sentitzen, baina gauetan burura etortzen zait galdera bera: ‘eta ni ezin naizenean moldatu, zer?’.”</i>
Zaintza non eta nola jaso: etxea vs egoitza	<i>“No quiero que me lleven a un asilo; prefiero quedarme en mi casa mientras se pueda.”</i> <i>“Que cuando pidas ayuda, no tarden; hori da nire eskaera nagusia.”</i>
Bakardadea eta elkarren beharra	<i>“La soledad... casi todas somos viudas; por eso nos juntamos aquí.”</i> <i>“Etxean bakarrik zaudenean, egunak oso luzeak egiten dira; hemen, behintzat, barre egiteko tartea dago.”</i>
Inklusio sozialaren mugak	<i>“No todo el mundo es aceptado en una asociación; batzuentzat ez dago lekurik edo ez dira sentitzen bertako.”</i> <i>“Norbera ere lotsati bihurtzen da, eta ez da ausartzen taldeetara hurbiltzen.”</i>
Familia eta laguntza baldintza gisa	<i>“No puedo subir el brazo y necesito ayuda para limpiar; pero si tienes un hijo en casa, no te dan la ayuda.”</i> <i>“Zerbait eskatzeko orduan, familiaren egoera ‘normala’ dela suposatzen da, eta ez da beti horrela.”</i>
Autonomia mantendu eta laguntza onartu arteko barne-borroka	<i>“Yo hasta el momento me valgo, vivo sola; baina badakit gauza batzuk utzi behar izan ditudala.”</i> <i>“Kostatzen da onartzea beste baten beharra duzula; lehen egiten zenuena orain ezin duzunean, gogorra da.”</i>
Informazio faltaren ondorioak	<i>“Desconozco la asistencia social que dan desde el ayuntamiento... nunca he preguntado, la verdad.”</i> <i>“Badakit ba omen direla laguntzak, baina inork ez dit argi azaldu nola funtzionatzen duten.”</i>
Burokrazia eta sarbide zailtasunak	<i>“La atención debe be más fácil y rápida; tanto papeleo asusta.”</i> <i>“Gizarte-langilea egon beharko litzateke beti, eta ez zorte kontua izan nor aurkitzea.”</i>
Informazio puntu sinple baten beharra	<i>“Guk nahi duguna da norbaitek gauzak erraz azalduko dizkigun leku bat, bueltaka ibili gabe.”</i> <i>“Puntu bakar bat egongo balitz galdetzeko, asko erraztuko liguke bizitza.”</i>
Egoitza eredua eta kostu ekonomikoa	<i>“Me resisto, pero la residencia es la ‘única’ solución que se nos plantea.”</i> <i>“Egoitzak oso garestiak dira; guk ez dugu gure bizitza osoa hor ordaintzeko aukerarik.”</i>
Komunitatearen babesa eta konfiantza sareak	<i>“Oso zainduak sentitzen gara herrian zehar; jendeak galdetzen du, ‘non zinen gaur?’.”</i> <i>“Konfiantza handia dago; kalean bakarrik ibiltzen gara, baina badakigu jendeak begiratzen gaituela.”</i>

7. EMAITZEN ANALISIA

Dimentsio honen helburua, Anoetako herritarrek eta eragile ezberdinek zaintza nola ulertzen duten, nola bizi duten eta zein esperientzia pertsonal dituzten jasotzea da. Analisiak galdetegiaren datuak eta elkarrizketetako diskurtsoak uztartzen ditu, esferen arteko ikuspegiak kontuan hartuta.


7.1. Zaintzaren ulerkera eta pertzepzio orokorra

6. Dimentsio atalean ikusi dugunez, galdetegiaren emaitzek eta esferen arabera elkarrizketek irudi nahiko bateratua ematen dute: zaintza ez da gai periferikoa, baizik eta Anoetako herritarren imajinarioan erdigunean kokatzen den dimentsio bat. Orain, datu horiek interpretatzerakoan, bi galdera nagusi gurutzatzen dira: batetik, zenbateraino dagoen zaintzaren garrantziaren inguruko adostasun soziala; eta bestetik, balorazio hori nola lotzen den generoaren arabera bizi diren esperientzia eta ardurekin.

Galdetegian, 0–10 eskalarekin neurtu da zaintzaren garrantzia gizartearen ongizaterako. 6. atalean deskribatu den bezala, balorazio gehienak 8 puntu edo gehiagokoak dira, eta batez bestekoa oso altua da. Hemen, generoaren arabera banaketa aztertzeak ñabardura garrantzitsu bat gehitzen du: emakumeek eta gizonak zaintza oso garrantzitsutzat jotzen duten arren, emakumeen kasuan are gehiago pilatzen dira garrantzia “oso altuan” kokatzen duten erantzunak.

7.1.1. Zaintzaren garrantzia gizartearentzat

Hurrengo irudian garbiago ikus daitekeenez, **emakumeen %75ek** eta **gizonen %63,6k** zaintza gizartearentzat “oso garrantzitsua” dela adierazi dute (9–10 puntuak). Gizonen artean, proportzio handiagoa pilatzen da garrantzia “altuan baina ez maximoan” (7–8 puntuak: %31,8), eta emakumeen kasuan garrantzi-maila altu horiek ere esanguratsuak badira (%16,7), baina gehiengoa 9–10 tartean kokatzen da. Maila ertaineko balorazioak (5–6) oso gutxitan agertzen dira bi kasuetan, eta ia ez dago garrantzia baxuan kokatzen duen erantzunik.



Datuen iturria: Anoetako Zaintzen Galdetegia (III. eta IV. Eranskinak)

Beraz, bi ideia nagusi atera daitezke: alde batetik, **ia adostasun sozial bat** dago zaintzaren garrantziaren inguruan genero guztietan; bestetik, emakumeen artean are sendoagoa da zaintza “funtsezko” gisa ikusteko joera. Horrek ez du bakarrik “iritzi” desberdin bat adierazten, baizik eta genero bakoitzak zaintzarekin duen lotura material eta emozionalarekiko harremana islatzen du.

Elkarrizketetan, joera kuantitatibo hori diskurtso kualitatiboetan berrerreproduzitzen da. Esfera komunitarioan, adibidez, zaintza “gertukoa” eta egunerokoa dela azpimarratzen da, baina askotan beharra agertzen denean soilik izendatzen dela:

Esfera Komunitarioa

“

“Zaintza gertukoa ulertzen da. Adineko edo haurren kasuan beharra dagoenean bakarrik ulertzen da. Gaur egun norbanakoaren zaintza ere gehiago ikusten da, baina normalean beharra sortzen denean ulertzen degu, eta konpromezua norbanakoarena bezala hartzen da, ez komunitatearena.”

Emakumeen kasuan, balorazio altu horren atzean ez dago soilik kontzientzia abstraktu bat, baizik eta eguneroko praktika metatuak. Esfera pribatuan, adibidez, zaintzaren banaketa historikoa modu oso zuzen eta argian azaltzen da:

Esfera Pribatua

“

“Orain arte, emakumeak izan dira haurren, norbanakoaren eta adinekoen zaintzaren ardura hartu dutenak. Egia da gaur egun gauzak aldatzen ari direla, baina familia ereduaren arabera asko baldintzatzen da.”

Komunitateko elkarrizketa berean, zaintza emozioekin eta harreman afektiboekin lotuta agertzen da, eta generoaren arabera esperientzia desberdina esplizituki aipatzen da:

Esfera Komunitarioa

“

“Zaintzak emozioei lotuta daudela uste det. Eta emakumeok, zaintzarekiko emozioa oso presente. Gizonak gero eta gehiago hartzen dute parte haur eta familiaren zaintzan, baina hor ikertu beharko litzateke ze zaintza mota eskaintzen duten.”

Kualitatiboki, beraz, ikusten da emakumeek zaintza ez dutela soilik “oso garrantzitsua” gisa baloratzen: beraien bizitzaren antolaketa eta identitatea ere neurri handi batean hortik pasatzen da (etxeko lan ikusezinak, seme-alaben eta gurasoen arreta, lan ordaindua zaintza-arlotan, etab.). Gizonek, aldiz, gero eta gehiago parte hartzen badute ere, beren diskurtsoetan maiz agertzen dira “laguntzaren” hizkera eta bigarren mailako rolak. Hori guztia bat dator taulan ikusten denarekin: zaintza balio partekatua da, baina ez da era berean bizi, ezta modu berean antolatzen ere.

7.1.2. Zaintzaren-beharrak eta mendekotasunaren bizipena

Zaintzaren garrantziari buruzko balorazio orokor altu horren atzean, zaintza-beharrak nola bizi diren aztertzean, irudi konplexuagoa agertzen da. Galdetegiko datuek erakusten dute parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok adierazten dutela hurbileko norbaitek —senide, bikote edo gertuko norbaitek— zaintza edo laguntza behar duela (gutxi gorabehera %50,7k “Bai” erantzuten du), eta antzeko proportzio batek familiaz kanpoko zaintza-esperientziaren bat izan duela (%52,1). Aldiz, norberak zaintza edo laguntza behar duela esplizituki aitortzen dutenak askoz gutxiago dira (%15,5 inguru), eta gehiengo zabalak ez du bere burua zaintza-behar egoeran kokatzen. Desoreka horrek lehen pista bat ematen du: oso azkar ikusten dugu hurbilekoaren beharra, baina askoz motelago aitortzen dugu gurea.

Generoaren ikuspegitik, joerak antzekoak dira emakumeen eta gizonen artean, baina elkarrizketetan agertzen den pertzepzioa ez da berdina. Emakumeek kontatzen dute askotan “beti norbait zaintzen” egon direla, eta norberaren neke edo osasun-arazoak bigarren planoan geratzen direla, zaintza-beharrak dituztenen premien mesedetan. Zaintzaileen esferan, adibidez, eguneroko gainkarga fisiko eta emozionala modu oso argian azaltzen da:

Esfera pribatua



“Es de algo físico y emocional; llegas del trabajo, sigues cuidando y no sabes cuándo descansas de verdad.”

Hurbileko zaintza-beharrak, beraz, ez dira salbuespen gisa bizi; elkarrizketetan, familiaren eta eguneroko antolaketaren parte “normala” bezala azaltzen dira. Hori zuzenean lotzen da galdetegian ikusitako proportzio altu horrekin: erdiak baino gehiagok bizi du gertutik zaintza-beharra, eta askotan emakumeek hartzen dute ardura nagusia, bai familiaren barruan, bai lan-ibilbidean egindako moldaketen bidez. Mendekotasuna, horrela, ez da soilik beste bati gertatzen zaion egoera bat, baizik eta eguneroko antolaketa eta erabaki askoren atzean dagoen baldintza bat.

Familiaz kanpoko zaintza-esperientziei dagokienez, datuek erakusten dute herritar askok hartu dutela bere gain auzokide, lagun edo komunitateko beste norbait zaintzeko ardura; askotan “laguntzatxo” gisa hasten dena, denborarekin konpromiso iraunkorrago bihurtzen da. Esfera komunitarioan jasotako diskurtso batek oso ondo jasotzen du hori:

Esfera komunitarioa



“Hasieran laguntzatxo bat besterik ez zela zirudien, baina azkenean egunero egiten nion bisita eta ia familiakoa bihurtu zen.”


Horrelako testigantzek erakusten dute mendekotasun-egoerak ez direla soilik etxeko esparruan kokatzen: herriko harreman-sarean ere lekua hartzen dute, eta zaintza-lanak modu informalean hedatzen dira, boluntariora edo auzotasun logika baten barruan. Baina, aldi berean, zaintza formalaren eta informalaren arteko mugak lausotzen dira, eta zaintzaileek —bereziki emakumeek— euren gain hartzen dituzte askotan egiturazko hutsuneen ondorioak.

Azken batean, azpiatal honek erakusten du Anoetan zaintza-beharrak oso modu hurbilean bizi direla —etxean, familian, auzoan—, baina norberaren beharra aitortzeko zalantza eta erresistentzia handia dagoela. Horrek baldintzatuko du, ondorengo ataletan ikusiko den bezala, nola banatzen diren ardura eta erantzukizunak, eta nola antolatzen den zaintza-sarea maila publiko, pribatu eta komunitarioan.

7.1.3. Zaintzaren balioa eta bizipenen gurutzaketa

Zaintzaren garrantziari buruzko balorazio altuak (7.1.1) eta zaintza-beharraren inguruko datuek (7.1.2) elkarrekin irakurri direnean, tentsio txiki baina esanguratsu bat agertzen da. Batetik, ia adostasun sozial bat dago zaintza gizartearen ongizaterako funtsezko baldintza dela esateko; bestetik, ez da modu berean aitortzen nork dagoen “zaintza-behar egoeran”. Hurbileko pertsonen zaintza-beharrak eta familiatik kanpoko zaintza-esperientziak oso hedatuta daude, baina norberaren mendekotasuna edo zaintza-beharra aitortzen dutenak gutxiago dira.

Pribatua eta Publikoa	Informazio argi eta sarbide sinplearen premia Esfera pribatuan eta zainduen esferan behin eta berriz agertzen da informazio ulerterraza eta bideratze puntu bakarra izateko eskaria. Esfera publikoak ere aitortzen du egungo antolaketak konplexutasun handia duela. Konbergentzia argia da: eskubideak gauzatzeko lehen baldintza da jendeak jakitea nora jo eta nola eskatu laguntza.

Konbergentzia-puntu hauek erakusten dute, tentsio ugari egon arren, badagoela adostasun esanguratsua zenbait norabidetan. Alde batetik, zaintza-eredu publiko–komunitario baten beharra ia esferetan guztietan agertzen da: administrazioak ezin du dena bere gain hartu, eta komunitateak ezin ditu bere kabuz egituratu egungo zaintza beharren intentsitatea eta

iraupena. Horrek eskatzen du rola argitzea eta baliabide formalak eta harreman-sare informalak potentziala modu esplizituan uztartzea.

Bestetik, familia-sarearen eta zaintzaileen figuraren garrantzia ez da inon zalantzan jartzen; eztabaida zentroan dago ea nola bermatu haien ongizatea eta eskubideak, maitasunaren diskurtso hutsetik harago. Zainduen eta komunitatearen arteko konbergentziak, berriz, argi uzten du zaintza ez dela soilik “zerbitzu” kontu bat: espazio fisiko eta sozialek, topaketa eta ohiturek, paper nagusia dute bizi-kalitatean. Azkenik, informazioaren eta sarbidearen inguruko adostasun zabala funtsezkoa da: zaintza-eskubidea errealitate bihurtzeko, lehentasunez landu beharreko arloa da, eta hori da ondorengo proposamen eta planifikazioetan zeharka agertu beharko litzatekeen oinarrietako bat.

7.6. Proposamen interesgarriak

17. Taula. Proposamen eta ekarpen interesgarriak

“	<i>Pintxopoteetan kontsumitzen diren botiletan zaintzari eta generoari buruzko mezu laburrak jarri genitzake.</i>
“	<i>Herri jaietan (Sanjuanak, euskal jaiak...) zaintzaren inguruko ekintza eta dinamika txikiak sar daitezke, jende asko biltzen denean aprobetxatuz.</i>
“	<i>Farmazia, denda txikiak edo liburutegia bezalako espazioak “radar sozial” moduan antolatu ditzakegu, zaintza-beharak antzemateko.</i>
“	<i>Ttipi ttapa eta horrelako ibilaldiak indartu genitzake, belaunaldi ezberdinak elkarrekin jarri eta bakardadea apurtzeko.</i>
“	<i>Bizilagunak medikura edo botikara laguntzea bezalako keinu txikiak antolatuta, zaintza-sare informal txikiak sortu daitezke auzokoa.</i>

17. Taulan jasotako proposamenek erakusten dute Anoetan badagoela potentzial handia zaintza **eguneroko herri-bizitzan txertatzeko**. Pintxopoteak, herriko jaiak, Ttipi ttapa edo farmazia eta denda txikiak ez dira “gehigarri” hutsak: zaintzari eta generoari buruzko mezuak zabaltzeko, bakardade egoerak antzemateko eta harreman-sareak sendotzeko gune estrategiko bihurtzeko daitezke.

Era berean, proposamenek ongizate indibiduala eta **antolaketa kolektiboa** lotzen dituzte. Bizilaguna medikura laguntzea, bakarrik daudenentzako laguntza-sareak antolatzea edo espazio komun bat egokitzea ez dira ekintza isolatuak, baizik eta norabide berean mugitzen diren piezak: etxeko zaintzaren zama arindu eta zaintza-sare publiko-komunitarioago baterantz aurrera egiteko pauso praktikoak.

8. ONDORIOAK

8.1. Ondorio nagusiak eta laburpen taula

➤ **Zaintza herritarren bizitzaren erdigunean dago, eta ez da abstrakzio hutsa.**

Inkestatuen %70ek baino gehiagok zaintza 9–10 punturekin baloratzen dute, eta parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok adierazten dute zaintza-esperientziaren bat dutela edo hurbileko norbait zaintza-beharrean dutela (%52,1ek familiaz kanpoko zaintza-esperientzia izan dute, eta %50,7k hurbileko pertsona baten zaintza-beharrak ezagutzen dituzte). Hala ere, soilik %15,5ek aitortzen dute beraiek laguntza edo zaintza behar dutela, eta gehiago zabalak bere burua ez du kokatzen zaintza-behar egoeran: errazagoa da besteen ahultasuna ikustea norberarena baino.

➤ **Zaintza esperientziak nabarmen feminizatuta eta belaunaldi artekoak dira.**

Laginaren ia bi heren emakumeak dira (%67,6), eta elkarrizketetan zaintzaren inguruko kontakizun nagusiak emakume heldu eta adinekoenak dira. Haiek deskribatzen dute “dena kudeatzen” dutela (umeak, gurasoak, etxea, lana), eta gero eta ohikoagoa dela belaunaldi arteko zaintza (seme-alabak eta gurasoak aldi berean). Zaintza-lanen feminizazioa errealitate kuantitatibo eta kualitatiboa da, eta horrek genero-desberdintasunean eta ongizatean ondorio zuzenak ditu.

➤ **Zaintza-sistema oraindik ere oso familiarizatua eta pribatizatua da.**

Inkestetan, gehienek familiari egozten diote zaintzaren ardura nagusia, eta ondoren agertzen dira zerbitzu publikoak eta komunitatea ardura partekatuen eragile gisa. Diskurtsoetan, “familiak egin behar duena” ideia oso errotuta dago, eta familia horren barruan emakumeek protagonismoa hartzen dute. Horrek esan nahi du zaintza-ereduaren oinarria etxeko esparru pribatuan kokatzen dela oraindik, eta erantzukidetasunaren diskurtsoak (gizonak, administrazioa, komunitatea) ez duela oraindik neurri berean islatzen eguneroko praktikan.

➤ **Zerbitzu publikoen eta informazio-sistemen ahulguneak zaintza-eskubidea gauzatzeko oztopo nagusietako bat dira.**

Galdetegiaren arabera, herritar kopuru esanguratsu batek ez ditu ondo ezagutzen zaintza-zerbitzu eta baliabideak, eta elkarrizketetan askotan agertzen da “non galdetu ez jakitearen” eta burokraziaren nekea. Administrazioaren papera beharrezkotzat jotzen da, baina sarritan

“urrun”, motel eta nahasita bizitzen da. Horrek arrakala bat sortzen du formalki existitzen diren eskubideen eta praktikan baliatu ezin diren baliabideen artean.

- **Komunitateak zaintzarako potentzial handia du, baina egitura eta jarraikortasun falta handiak dira.**

Anoetako tamainak eta egiturak (elkar ezagutzea, denda, farmazia, Ttipi ttapa, jaiak...) abantaila handia ematen du, eta komunitatea ikusten da zaintzaren euskarri garrantzitsu gisa. Baina aldi berean, indibidualismoa, denbora faltaren diskurtsoa eta “beti berdinak” aktibatzen direla azpimarratzen da. Komunitatearen balioa aitortua dago, baina ahulezia da jarduera horiek ez egotea egituratuta, aitortuta eta denboran iraunkor.

- **Zaintzaileen desgaste fisiko eta emozionala sistemaren ahulgune estrategikoa da.**

Zaintzaileen esferako testigantzek irudi oso argia ematen dute: 24 orduko txandak, lo etenak, etengabeko alerta egoera eta lan-baldintza prekarioak. Zaintzaileek azaltzen dute euren ongizateak zuzen-zuzenean eragiten diola zainduen ongizateari, baina egungo sistemak ia ez duela aurreikusten atsedeen, sostengu eta aitortza nahikorik. Hori azpimarratzeko modukoa da: zaintzaileen ongizaterik gabe ez dago zaintza-sare jasangarririk.

- **Zainduen ahotsak bakardadea, beldurra eta informazio-eza uztartzen ditu.**

Etorkizuneko zaintzaren inguruko kezka (“nork zainduko nauen”), bakardadearen esperientzia eta egoitza/etxea dikotomiaren inguruko zalantzak behin eta berriz agertzen dira. Herrian zainduta sentitzen badira ere (kalean, dendetan, Ttipi ttapan...), laguntzen sarbidea zaila dela bizi dute, batez ere informazio faltagatik eta tramiteen konplexutasunagatik. Hori guztia kontuan hartuta, zainduen ongizatea ez da soilik baliabide kopuruaren araberakoa, baizik eta nola antolatuta dauden, nola komunikatzen diren eta nola bizi diren.

- **Esferen arteko diagnosi partekatua handitzen ari da, baina hizkuntza eta lehentasunak ez datoz beti bat.**

Esfera publikoak, pribatua, komunitarioa, zaintzaileak eta zainduak gero eta gehiago ari dira hitz berberak erabiltzen (komunitatea, eskubideak, bakardadea, erantzukidetasuna...), baina bakoitza leku eta interes ezberdinetatik. Hala ere, horrek aukera bat zabaltzen du: tentsioak bistaratuta eta izendatuta daudenez, badago oinarri komun bat etorkizuneko eredu publiko-komunitarioa eraikitzeko.

18. Taula. Ondorio Nagusien Laburpen Taula

Arloa	Adierazle kuantitatibo nagusiak (galdetegia)	Diskurtso / esperientzia kualitatibo nagusiak (elkarrizketak)
Profil orokorra eta ahots nagusia	Inkestatuen %67,6 emakumeak dira, eta laginaren zati handi bat 45 urtetik gorakoa da; Anoetan bizi dira ia denak. Zaintzaren garrantzia 9–10 punturekin baloratzen dute gehienek, eta zaintza eguneroko bizitzako gai zentral gisa ikusten da.	Zaintzaren inguruko ahots nagusiak emakume heldu eta adinekoenenak dira, eta beren bizitzaren zati handia zaintzan igaro dutela kontatzen dute. Gizonen ahotsa gutxiago agertzen da, eta maiz “laguntza” roletik deskribatzen dute euren ekarpena.
Zaintza-esperientziak eta zaintza-beharrak	Parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok familiaz kanpoko zaintza-esperientzia izan du (%52,1), eta antzeko proportzio batek hurbileko norbait zaintza-beharrean duela dio (%50,7). Norberak zaintza edo laguntza behar duela aitortzen dutenak, ordea, %15,5 besterik ez dira.	Zaintza oso presente dago eguneroko bizitzan, baina norberaren ahultasuna izendatzea zailagoa da. Elkarrizketetan nekea, erru-sentimendua eta autoexijentzia handia agertzen dira, bereziki mendekotasun-egoerak luzatzen direnean. Aldi berean, zaintzak zentzua eta harreman afektibo sakonak ematen dituela azpimarratzen da.
Zerbitzu publikoen ezagutza eta sarbidea	Inkestek erakusten dute herritar-talde esanguratsu batek ez dituela ondo ezagutzen zaintzarekin lotutako udal zerbitzuak eta baliabideak, eta informazioa partziala edo zatikatua dela. Askok adierazten dute ez dakitela non galdetu edo nola hasi tramiteak.	Diskurtsoetan behin eta berriz aipatzen dira informazio falta, burokrazia astuna eta prozeduren konplexutasuna. Udalaren papera beharrezkotzat jotzen da, baina sarritan “urrun” edo “nahasita” bizitzen da. Zaintzaren antolaketa administratiboaren eta bizipen errealearen artean desdortze nabarmena dago.
Komunitatea eta harreman-sareak	Inkestek adierazten dute komunitateak ere baduela papera zaintzan, eta erantzun gehienak 6–8 puntuko tartean pilatzen dira herriaren sensibilizazio-maila baloratzean.	Komunitatea kalean, plazan, dendetan, farmazian, elkarteetan eta Ttipi ttapan gauzatzen den harreman-sare gisa deskribatzen da. Alde positiboa da elkar ezagutzea eta harreman estuak; alde ahulean, indibidualismoa, denbora falta eta “betiko berdina” aktibatzen direla azpimarratzen da.
Erantzukidetasuna eta genero-ikuspegia	Inkestetan, zaintzaren ardura nagusia familiari egozten diote gehienek, eta bigarren mailan agertzen dira zerbitzu publikoak eta komunitatea ardura partekatua eragile gisa. Datu soziodemografikoek ere erakusten dute zaintza-lanen feminizazio argia.	Elkarrizketetan emakumeek “dena kudeatzen” dutela kontatzen dute (umeak, etxea, gurasoak, lana), eta gizonak sarritan “lagundu” egiten dutela diote, ez ardura nagusia hartu. Erantzukidetasunaren diskurtsoa zabaltzen ari bada ere, praktikan genero-desoreka oso argia da.
Bakardadea eta etorkizunarekiko beldurra	Galdetegiko erantzunetan eta udal-datuetan jasotzen da herrian mendekotasun egoerak eta adinekoen kopurua handitzen ari direla; horrek zaintza-beharren gorakada dakar, bai norberaren kasuan bai hurbilekoenean.	Adinekoek eta zainduak bakardadea, mugikortasun-galera eta etorkizuneko zaintzaren inguruko beldurra konpartitzen dute. Garraioaren eta eguneroko irteeren murrizketak “bizitzaren itxiera sozial” gisa bizi dira. Herrian zainduta sentitzen badira ere, “nork zainduko nauen” galdera errepikakorra da.
Profil orokorra eta ahots nagusia	Inkestatuen %67,6 emakumeak dira, eta laginaren zati handi bat 45 urtetik gorakoa da; Anoetan bizi dira ia denak. Zaintzaren garrantzia 9–10 punturekin baloratzen dute gehienek, eta zaintza eguneroko bizitzako gai zentral gisa ikusten da.	Zaintzaren inguruko ahots nagusiak emakume heldu eta adinekoenenak dira, eta beren bizitzaren zati handia zaintzan igaro dutela kontatzen dute. Gizonen ahotsa gutxiago agertzen da, eta maiz “laguntza” roletik deskribatzen dute euren ekarpena.

9. ETORKIZUNeko ERRONKAK ETA JARDUERA ILDO POSIBLEAK

9.1. Etorkizuneko erronkak

- **Zaintza-eskubidea Anoetan benetan gauzatzeko egiturak eraikitzea.**

Erronka nagusietako bat da zaintza diskurtsoetan eskubide gisa agertzetik, praktikan bermatuko duten egitura eta prozeduretako jauzia ematea. Horrek esan nahi du herri mailako antolaketa-eredu propio bat diseinatzea (informazio eta harrera puntu argiak, koordinazio-mekanismoak, baliabide nahikoak...), eta ez uztea zaintza familia eta komunitatearen borondate hutsean oinarrituta.

- **Genero-desoreka eta familia-gaineko zama estrukturala lehuntzea.**

Zaintzaren feminizazioa eta belaunaldi arteko karga nabarmenak direnez, erronka da gizonak, administrazioa eta komunitatea benetan inplikatzeko ardura-banaketan. Horretarako, zaintzaileen lan-baldintzei eta eskubideei buruzko eztabaida politikoa ireki behar da, etxeko esparru pribatuaren mugak gaindituz.

- **Informazio eta sarbide sistema ulerterraza eta hurbila eratzea.**

Herritar askok ez dakite zer baliabide dauden, non galdetu edo nola hasi tramiteak. Etorkizuneko erronka estrategikoa da Anoetan “ate bakarreko” antolaketa bat diseinatzea zaintzarekin lotutako galderei eta egoerei erantzuteko, hizkera errazean, aurrez aurreko harremanarekin eta ahalik eta burokrazia gutxienarekin.

- **Komunitate-sareak egituratu eta ez “nekatu” gabe mantentzea.**

Potentzial handia dagoen arren, gaur egun komunitateko ekarpen asko espontaneoki eta “betiko pertsona berberen” ahaleginarekin gertatzen dira. Erronka da sare horiek planifikazio, jarraipen eta babesa izango duten egitura batean txertatzea, borondate hutsetik harago.

- **Esferen arteko gobernantza publiko-komunitario egonkorra sendotzea.**

Zaintza-eredu berri bat definitu eta ezartzeko, ezinbestekoa da esferak (publikoa, pribatua, komunitarioa, zaintzaileak, zainduak) modu sistematikoan elkartzeko espazioak sortzea.

Erronka da parte-hartze hori ez izatea puntual edo proiektu jakin batek baldintzatua, baizik eta denboran iraungo duen egitura batean txertatuta egotea.

9.2. Jarduera-ildo posibleak

➤ Zaintzaren informazio eta orientazioaren zentralizazioa.

Zaintzarekin lotutako zalantza, laguntza eta egoera guztiak jasoko dituen harrera-gune bat diseinatzea: gizarte-langile edo erreferente batek aurrez aurreko orientazioa emango luke, herrian dauden baliabide eta eskubideei buruzko informazio ulerterraza eskaintzeko.

➤ Zaintzaileen zaintzarako eta atsedenerako programa pilotu bat garatzea.

Zaintzaile informal eta profesionalentzako atsedeen-zerbitzuak, talde terapeutikoak eta prestakuntza saioak antolatzea, herri mailan edo inguruko baliabideekin elkarlanean. Helburua da zaintzaileen desgastea arintzea eta euren ongizatea zaintza-sistemaren zati gisa aitortzea.

➤ Herri mailako sentsibilizazio eta komunitate-ekintza plan bat diseinatzea.

Pintxopoteak, herriko jaiak, Ttipi ttapa eta bestelako jarduerak aprobetxatuz, zaintza eta genero-ikuspegia lantzeko ekintza txiki eta erregularrak sustatzea (mezu laburrak botiletan, dinamika parte-hartzaileak, elkarriketa guneak...). Horrela, zaintza herri-bizitzaren parte bihurtuko litzateke, ez aparteko gai bat.

➤ Bakardade egoeren detekzio eta erantzun proaktiboa antolatzea.

Farmazia, denda txikiak, osasun zentroa eta beste eragile batzuk inplikatur, bakarrik edo egoera ahulean bizi diren pertsonen egoerak lehen momentuan antzemateko eta Udaleko informazio-puntura bideratzeko protokolo sinple bat adostea.

➤ Gobernantza publiko-komunitariorako talde motorra edo mahai iraunkorra sortzea.

Matia Fundazioa, Zabalduz, Udala, komunitateko eragileak, zaintzaile eta zainduen ordezkaritza eta herritarrak elkartuko dituen egitura egonkor bat eratzea. Talde horrek plan estrategiko bateratua zehaztu, lehentasunak adostu eta ekintza zehatzak ebaluatuko lituzke, diagnosi honetan jasotako ondorio eta proposamenak oinarri hartuta.

10. BIBLIOGRAFIA

- Arrieta, F. (2022). Gizarte zerbitzu sistematik, zaintza sistemara: Nola egin saltoa? *Euskonews*, 775.
- Berman, S. (1997). *Children's social consciousness and the development of social responsibility*. State University of New York Press.
- Bilgune Feminista. (2021). *Indarkeriarik gabeko bizitzak eraikitzen: Osatze feminista*. Euskal Herriko Bilgune Feminista.
- Borderías, C., Carrasco, C., & Alemany, C. (1994). *Las mujeres y el trabajo: Rupturas conceptuales*. Icaria/FUHEM.
- Cabrera, G. (2006). La responsabilidad social de la empresa y las metas de desarrollo del milenio. Eskuragarri: <http://www.educared.edu.pe/directivos/articulo/1044/la-responsabilidad-social-de-la-empresa-y-las-metas-de-desarrollo-del-milenio/>
- Carrasco, C. (2001). La sostenibilidad de la vida humana: ¿Un asunto de mujeres? *Mientras Tanto*, 82, 43–70.
- Comas d'Argemir, D. (1993). Sobre el apoyo y el cuidado. División del trabajo, género y parentesco. In X. Roigé (Coord.), *Perspectivas en el estudio del parentesco y la familia (VI Congreso de Antropología)* (pp. 65–82). Asociación Canaria de Antropología.
- Crenshaw, K. (1989). Demarginalizing the intersection of race and sex: A Black feminist critique of antidiscrimination doctrine, feminist theory and antiracist politics. *University of Chicago Legal Forum*, 1989(1), 139–167.
- Delphy, C. (1998). *Close to home: A materialist analysis of women's oppression*. Hutchinson.
- Emagin Elkarte. (2020). *Zaintza lanen demokratizaziorantz: Beterri-Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnosia eta ekintzarako proposamena 2020*. Emagin.
- European Commission. (2022). *European care strategy* (COM(2022) 440 final). Publications Office of the European Union.
- Federici, S. (2012). *Revolution at point zero: Housework, reproduction, and feminist struggle*. PM Press.
- Finch, J. (1989). *Family obligations and social change*. Polity Press.
- Fraser, N. (2016). Contradictions of capital and care. *New Left Review*, 100, 99–117.
- Goikoetxea, M. (2020). La soledad y el valor del cuidado. In Ararteko (Ed.), *[Txostena]* (pp. 31–49). Ararteko.

Hill Collins, P. (2000). *Black feminist thought: Knowledge, consciousness, and the politics of empowerment* (2nd ed.). Routledge.

hooks, b. (2000). *Feminist theory: From margin to center* (2nd ed.). Pluto Press.

Hochschild, A. R. (2001). Global care chains and emotional surplus value. In W. Hutton & A. Giddens (Eds.), *On the edge: Living with global capitalism* (pp. 130–146). Jonathan Cape.

Lewis, J. (1992). Gender and the development of welfare regimes. *Journal of European Social Policy*, 2(3), 159–173.

López-Cabanas, M., & Chacón, F. (1999). *Intervención psicosocial y servicios sociales: Un enfoque participativo*. Síntesis.

Montero, M. (2003). *Teoría y práctica de la psicología comunitaria: La tensión entre comunidad y sociedad*. Paidós.

Montero, M. (2004). *Introducción a la psicología comunitaria: Desarrollo, conceptos y procesos*. Paidós.

Mori Sánchez, M. D. P. (2009). Responsabilidad social: Una mirada desde la psicología comunitaria. *Liberabit*, 15(2), 163–170.

Pautassi, L., Faur, E., & Gherardi, N. (2004). *Legislación laboral en seis países latinoamericanos: Avances y omisiones para una mayor equidad* (Serie Mujer y Desarrollo, 56). CEPAL.

Pérez Orozco, A. (2014). *Subversión feminista de la economía: Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. Traficantes de Sueños.

Saitua, A., & Sarasola, M. (1993). La insumisión. El cuidado como elección. *Geu Emakumeok*, 17, 27–29.

Schwald, M. (2004). *Responsabilidad social: Fundamentos para la competitividad empresarial y el desarrollo sostenible*. Universidad del Pacífico.

Torns, T. (2005). El tiempo de trabajo y las relaciones de género: Las dificultades de un cambio ineludible. In *Tiempos, actividades, sujetos: Una mirada desde la perspectiva de género*. Instituto de la Mujer.

Tronto, J. C. (1993). *Moral boundaries: A political argument for an ethic of care*. Routledge.

11. ERANSKINAK

I. Eranskina: Galdetegi itxia

ANOETAKO ZAINZA SAREA
RED DE CUIDADO DE ANOETA

ZERTAZ ARI GARA ZAINZAZ ARI GARENEAN?

¿DE QUÉ HABLAMOS CUANDO HABLAMOS DE CUIDADOS?

Pertsona guztiok behar ditugu zainetak edo laguntzak gure bizitzako unerik baten batean. Izan ere, zainetak gure egunerokotasunaren parte dira eta hainbat modutan azaleratzen dira.

Todas las personas necesitamos cuidados o apoyos en algún momento de nuestra vida. Y es que los cuidados forman parte de nuestro día a día y están presentes de diferentes maneras.

ZERGATIK ANOETAKO ZAINZA SAREA?

Gehienok gure herrian zahartu nahi dugu, gure etxean, gure jendearekin, bizitza duina biziz eta gure herriaren parte sentituz. Baina zainketak behar ditugun heinean, hori ez da erraza izaten, hainbat behar eta egoera sortzen dira, eta horrek zaildu egiten digu gure biziproiektuari jarraipena ematea.

La mayoría de las personas aspiramos a envejecer en nuestro pueblo, en nuestra casa, con nuestra gente, viviendo una vida digna y sintiéndonos parte de nuestra localidad. Pero a medida que vamos necesitando cuidados, esto no suele ser fácil, van surgiendo diferentes necesidades y situaciones que nos dificultan dar continuidad a nuestro proyecto vital.

NOLA EGINGO DUGU?

lido horretan lan egiteko, ezinbestekoa da zaintzaren kultura birpentsatzea eta horrek dakarren erantzukidetasunari buruz, eta etxeko, laneko eta gizarteko bizitzaren berrantolaketari buruz hausnartzea. Zaintzea eta zainduta izatea balio soziala izateaz gain, agerikoa, miresgarria eta aitortua ere izan dadin.

Horretarako, udalak parte-hartze prozesu bat jarriko du abian, zeinetan beharren diagnostikoa egingo den eta datozen urteetarako ibilbide-oria disenatuko den. Anoetako pertsona, eragile eta erakunde oztiak izango dute prozesuan parte hartzeko aukera.

Para trabajar en esta línea es indispensable repensar la cultura del cuidado y reflexionar sobre la coresponsabilidad que ésta conlleva y sobre la reorganización de la vida cotidiana en el ámbito doméstico, laboral y social. Para que cuidar y ser cuidada/o sea un valor social, visible, admirable y reconocido.

Para ello, desde el ayuntamiento se pondrá en marcha un proceso participativo, donde se realizará un diagnóstico de necesidades y se diseñará una hoja de ruta para los próximos años. Todas las personas, entidades y agentes comunitarios de Anoeta tendrán la oportunidad de participar en el proceso.

GALDETEGIA CUESTIONARIO



ANOETAKO ZAINZA SAREA

Bete ondorengo galdetegia dagokion laukian X jarritz

RED DE CUIDADO DE ANOETA

Rellene el siguiente cuestionario mediante una X en la casilla de la respuesta

1 Generoa / Género ☐ Emakumea / Mujer ☐ Gizona / Hombre ☐ Ez-bitarra / No binario	5 Administrazio publikoak zaintzari lotutako erroketari aurre ekitaldi prestatuta daukela utzi al duzu? / ¿Crees que las administraciones públicas están preparadas para abordar los retos relacionados con los cuidados? ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No ☐ Beste bat / Otro
2 Gaur egun Anostan bizi al zara? / Actualmente resides en Anost? ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No	6 Eta komunitateak? (adibidez: bizilagunak, merkatarik, lagun taldeak, herriko elkarteak, herri mugimenduak...) / ¿Y la comunidad? (por ejemplo: vecindades, comerciantes, grupo de amigos/as, asociaciones locales, movimientos populares...) ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No ☐ Beste bat / Otro
3 Adin tartea / Franja de edad ☐ 16-24 urte / años ☐ 25-34 urte / años ☐ 35-44 urte / años ☐ 45-54 urte / años ☐ 55-64 urte / años ☐ 65-74 urte / años ☐ 75-84 urte / años ☐ 85 urte edo gehiago / 85 años o más Beste adin bat / Otra edad: _____	7 Eta familiak? / ¿Y las familias? ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No ☐ Beste bat / Otro
4 Zenbateko garrantzia daukala uste duzu zaintzatz gizaritatean oinartzean? / En esta escala, ¿cuánta importancia le das a los cuidados para el bienestar de la sociedad? (0 = ez diru beharrezkoak / no es necesario / 1 = ezbeharrak dira / son imprescindibles) 0 – 1 – 2 – 3 – 4 – 5 – 6 – 7 – 8 – 9 – 10 (ondorioa jartzeak / valoración de la puntuación)	8 Zaintza edo laguntza behar duen hurbileko pertsonarik baduzu? / ¿Tienes una persona cercana que requiera de cuidados o apoyos? ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No ☐ Beste bat / Otro 9 Eta zuk, laguntzarik edo zaintzarik behar al duzu? / En tu caso, ¿precisas de apoyos o cuidados? ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No ☐ Beste bat / Otro

10 Zure ustez, Anetoak udalak gure eremu zantza behar erantzuten al dute? ¿Crees que el ayuntamiento de Aneto da respuesta a las necesidades de los ciudadanos actuales? ☐ Bai / SI ☐ Ez / No ☐ Beste bat / Otro _____	16 Hartu al duzu parte jarduerara hauetan? ¿Has formado parte de alguna de ellas? ☐ Bai / SI ☐ Ez / No Zereta? / ¿En cuál?
11 Zure ustez, udal-politikoek erdian jartzten al ditzake pertsonen beharrik? ¿Crees que las políticas municipales pueden satisfacer las necesidades de las personas en el centro? ☐ Bai / SI ☐ Ez / No	17 Inoiz hartu al duzu zure familiarako edo inguruko ez den norbait zantza ardurarik? ¿Te has involucrado alguna vez en el cuidado de alguien ajeno a tu familia o a tu círculo cercano? ☐ Bai / SI ☐ Ez / No
12 Zure ustez, premia horiek kutsuaguz publiko-komunitarioak izan beharko lirateke? ¿Crees que estas necesidades se deberían abordar desde una perspectiva público-comunitaria? ☐ Bai / SI ☐ Ez / No	18 Anetoan Zaintza Sarea behar delako al duzu? ¿Crees que es necesario una Red de Cuidado en Aneto? ☐ Bai / SI ☐ Ez / No
13 Zure ustez, Anetoa zintza erdigunetan jartzten daen terria al da? ¿Crees que Aneto es el pueblo que pone los cimientos en el centro? ☐ Bai / SI ☐ Ez / No	19 Gustatuko litzazuke bertan hartze hartzea? ¿Te gustaría participar en él? ☐ Bai / SI ☐ Ez / No
14 Eskala horretan, nola beharukot zenuko Anetoak herriartek zaintzaren ingurutan duten sentibiltasio maila? En esta escala, ¿cómo puntuarías el grado de sensibilización de la ciudadanía de Aneto respecto a las ciudades? (0 = ez dira beharrekotak / no es necesario lo zintzabetsuko dira / son insensibles) 0 – 1 – 2 – 3 – 4 – 5 – 6 – 7 – 8 – 9 – 10 (ordenar la puntuación / ordenar la puntuación)	20 Gaita inbentarioa baziakatu eta prozesatu! Buscote informazioa gehiago jaso nahi izateko, utzi zure izena eta kontaktua, eta informazio gehiago bidaltuko dizuga. Si te interesa el tema y quieres recibir más información del proceso, déjanos tu nombre y contacto y te seguiremos informando. Izena / Nombre: _____ Tel. / e-mail: _____
15 Enzuten al duzu Anetoan zaintza sustatzeko dauden azaro komunitari jarduerak? ¿Conoces actividades vecinales/comunitarias que integren o fomenten las ciudades en Aneto? ☐ Bai / SI ☐ Ez / No ☐ Beste bat / Otro _____	21 Herri buruak izan, itzazkoden edo ekarpenen bat egin nahi al duzu? ¿Te gustaría hacer un comentario, sugerencia o aportación al respecto? Idatzi zure arazketa / Escribe tu respuesta:

Nola parte hartu?

¿Como se puede participar?

Eskuorria / Folleto

Web orriaren bidez / A través de la web
QRa eskaneatzu / Escaneando el QR

Galdetegia online
Cuestionario online

Noiz arte?

¿Hasta cuándo?

2025eko urriaren 31 arte

31 de octubre de 2025

Non utzi?

¿Dónde depositarlo?

Galdetegia bete eta gero udalotxean,
anbulategian, kiriolegian edo
farmazian utzi dezakezu.

Rellenar el formulario y depositarlo en el
ayuntamiento, ambulatorio, polideportivo
o farmacia.

ANOETA ELKAR ZAINDUZ

Zer behar dugu Anoetan
zainduta sentitzeko?

¿Qué necesitamos en Anoeta para
sentimos cuidados/as?

Zer ekarpen egin dezakegu
komunitate eta bizilagun gisa gure
inguruko pertsonak zaintzeko?

¿Cómo podemos aportar como personas
y como comunidad para cuidar de las
personas que nos rodean?

Nola egin nahi dugu aurrera zaintza
erdigunean jarriko duen herri
baterantz?

¿Cómo queremos avanzar hacia un pueblo
que ponga los cuidados en el centro?

ANAITASUNA
UDALA

Ayuntamiento
de Anoeta
Anoeta (Leizor)
48100

II. Eranskina: Elkarrizketa erdi

ELKARRIZKETA ERDI EGITURATUAK		
Datu orokorrak		
Parte Hartzailea/k:	Data: ____/____/____	
Zabalduz Kooperatibako teknikariak: Esti Beraza, Naiara Franco eta Katrin Etxebeste		
Ekimenaren aurkezpena		
• Helburuak	• Metodologia	• Gobernantza
Asistentzia eta konfidentzialtasunaren sinatzea*		
Parte-hartzaileak bermatu beharrekoa: • Nahikoa informazioa jaso dut azterlanari buruz. • Ikerketari buruz komenigarritzat jo ditudan galdera guztiak egin ahal izan ditut, eta erantzun aproposa eman didate. • Nire parte-hartzea borondatezkoa dela ulertzen dut bai eta nire datuak isilpekoak izango direla ere, eta edozein unetan ikerketan parte hartzea utz dezakedala, inolako eraginik gabe. • Ikerketarako helburuarekin nire datuak erabiliko direla dakit.		
*Konfidentzialtasun dokumentua atxikita		
Testuingurua		
Zaintzaz ari garenean, zertaz ari gara? Definizio txiki bat kokatzeko. Zaintzaz ari garenean, gure eguneroko jarduna posible egiten duten jardueren multzoaz ari gara (zer moduz dauden galdetzea, bazkaltzeko otordu bat prestatzea, etxe bizitza garbi izatea, umeen zaintza, mendekotasun egoeran dagoen adineko baten etxeko laguntza bermatzea...). Hala, zaintza lanak, herritarren ongizate fisiko eta emozionala egunero eta belaunaldi belaunaldi birsortzen duten jarduerak direla ulertzen ditugu.		
Adibideak: 1. Adineko senide bati deitu, nola dagoen jakiteko. 2. Gurasoek ezin dutenean haur bat eskolara eramatea. 3. Gaixorik dagoen senitarteko baten etxea garbitzea. 4. Bakarrik bizi den lagun edo senide batentzat etxeko janaria prestatzea. 5. Familiako haurrekin edo bizilagunekin arratsalde bat jolasean edo eskulanetan antolatzea. 6. Bizilagun bati supermerkatuko poltsak etxera eramaten laguntzea. 7. Adineko pertsona bati mediku-azterketa egiten laguntzea. 8. Norbaiti administrazio-izapide zail bat betetzen laguntzea. 9. Bakarrik edo egoera ahulean bizi diren pertsonentzako tokiko laguntza-talde bat sortzea. 10. Etxe baten sarreran arrapala bat jartzea, irisgarritasuna hobetzeko.		
1. Dimentsioa: Zaintzen gaineko kontzepzioa edo ikuskera		

1. **Zaintzen gainera ulertzen.**
 - a. Zuretzat zer dira zaintzak?
 - b. Baduzu zaintza ardurarik edo zaintzak behar dituen inor inguruan?
2. **Zaintzek herritarren ongizatean duten eragina**
 - a. Zaintzek pertsonen ongizatean eragina dutela uste duzu?
3. **Antolaketa moduak (modu parekidean).**
 - a. Zaintzak modu parekidean banatzen direla uste duzu?
 - b. Noren gain erortzen dira zaintza lanak zure ustez?
4. **Bilakaera demografikoaren (bizi iraupena luzatzea, gero eta adineko pertsona gehiago, jaiozte tasa baxua...) ondorioz sortu daitezkeen erroak.**
 - a. Bilakaera demografikoak zaintzen ikuspegitik erroa bat suposatzen duela uste duzu?
5. **Erakunde publikoek erroa hauei erantzuteko duten gaitasuna.**
 - a. Erakunde publikoak prest daude erroa honi erantzuteko?
6. **Komunitateak erroa hauei erantzuteko duen gaitasuna**
 - a. Eta komunitatea?

2. Dimentsioa: Zaintza Politikak

7. **Udalak zaintza beharrei erantzuteko eskaintzen dituen zerbitzuak.**
 - a. Udalak eskaintzen dituen zaintza zerbitzuak (gizarte zerbitzuak) ezagutzen dituzu?
 - b. Zeintzuk ezagutzen ditugu?
8. **Garatzen diren udal-politika hauek herritarren zaintza beharrak asetzeko daukaten gaitasuna.**
 - a. Eskaintzen diren zerbitzuak nahikoak direla uste duzu?
 - b. Asetu gabe garatzen diren beharrak.
9. **Udal-politiken lehentasunak:**
 - a. Garatzen diren udal-politikek, pertsonen beharrak erdigunean jartzen dituztela uste duzu?
10. **Zaintza politika berriak garatzeko beharrak:**
 - a. Erakunde publikoetatik zein zaintza behar garatzen dira erantzun gabe?
 - b. Zeintzuk izan beharko lirateke lehentasunak?
 - c. Eta etorkizunean? Aurrera begira, prebentzio neurrien beharrak.
11. **Zaintza hauek erantzuteko ardura.**
 - a. Zaintza beharrei erantzuteko ardura erakunde publikoek soilik dutela uste duzu? eta komunitateak? eta familiak?

- b. *Erakunde publikoen eta komunitatearen arteko elkarlana beharrezkoa dela uste duzu herri zaintzaile bat eraikitzeke?*

12. Zaintza politikek eta zaintza-harremanak (zaintza komunitarioa).

- a. *Komunitatetik zer egin daiteke zaintza beharrei erantzuteke? zein rol du komunitateak zaintzei dagokionean....?*

3. Dimentsioa: Zaintzekiko sentsibilizazioa eta erantzun-kidetasuna

13. Bizilagunek zaintza beharrekin daukaten sentsibilizazioa.

- a. *Herritarrek zaintzaren ikuspegia barneratua dutela uste duzu? sentsibilizatuta daude?*

14. Herritarren eskutik garatzen diren jarduerak.

- a. *Herritarrek edo herriko eragileek jarduera edo ekimenak antolatzean zaintzen ikuspegia barneratzen dutela uste duzu ?
(jaietan zaintza beharrak dituzten pertsonentzako eskaintza egokitu, ahulki erosoak jarri, irisgarritasuna...)*

15. Zaintza-komunitarioa garatzeko espazioak

- a. *Herritarren arteko zaintza sustatzeko zein espazio edo baliabide ditu udalerriak?*

16. Gure parte-hartze pertsonala

- a. *Familia eremutik haratago zein komunitateko pertsonen zaintza "asumitzeko" prestutasuna dagoela uste duzu?*

17. Zaintza-harremanak (zaintza komunitarioa) indartzek proposamenak

- a. *Herritarren arteko zaintza sustatzeko zein proposamen dituzu?*

4. Dimentsioa: Zaintza Ekosistema

Azalpen lagungarria

Herritarrok ditugun zaintza beharrei erantzuteko ezintasuna nabaria da eta ondorioz zaintza eredu berri baten inguruan herri bezala hausnartu eta elkarrekin zaintzen eraldaketarako prozesu bat abiatzea ezinbestekoa da. Komunitatea, instituzio publikoak eta eragileak saretu eta elkarrekin norantza berean lanean jarriko dituen prozesu bat alegia. Zaintzen eraldaketa prozesua gidatuko duen lankidetzazko gobernantza eredu berria izango da zaintza ekosistema.

18. Zaintza Ekosistema bezalako prozesu baten beharra.

- a. *Udalerriko zaintzen antolaketa hobetu eta zaintza beharrei erantzuteko helburua duen zaintza ekosistema bat beharrezkoa dela uste duzu? Zergatik?*
- b. *Zaintza ekosistema honetan parte-hartzea gustatuko litzaizuke?*
- c. *Inolako ekarpenik egitea gustatuko litzaizuke?*

III. Eranskina: Galdetegiaren erantzunen laburpen taula

X. Taula. Galdetegiaren emaitzen laburpen orokorra (n = 71)

Aldagaia	Maiztasuna (N)	Ehunekoa (%)
Generoa		
Emakumea	48	67,61%
Gizonezkoa	22	30,99%
Ez erantzuna	1	1,41%
Bizilekua		
Anoetan bizi	69	97,18%
Anoetatik kanpo bizi	1	1,41%
Ez erantzuna	1	1,41%
Adina		
16–24 urte	3	4,23%
25–34 urte	6	8,45%
35–44 urte	8	11,27%
45–54 urte	14	19,72%
55–64 urte	14	19,72%
65–74 urte	12	16,90%
75–84 urte	11	15,49%
85 urte edo gehiago	2	2,82%
Ez erantzuna	1	1,41%
Zaintzaren garrantzia (0–10)		
5 puntuko balorazioa	1	1,41%
6 puntuko balorazioa	2	2,82%
7 puntuko balorazioa	2	2,82%
8 puntuko balorazioa	13	18,31%
9 puntuko balorazioa	16	22,54%
10 puntuko balorazioa	34	47,89%
Ez erantzuna	3	4,23%
Administrazio publikoen prestutasuna zaintzarako		
Bai	11	15,49%
Ez	49	69,01%
Ez dakit	3	4,23%
Beste erantzun bat	5	7,04%
Creo que están en camino pero falta un poco	1	1,41%
Ez erantzuna	2	2,82%
Komunitatearen prestutasuna zaintzarako		
Bai	33	46,48%
Ez	22	30,99%
Ez dakit	7	9,86%
Beste erantzun bat	7	9,86%
Ez erantzuna	2	2,82%
Familien prestutasuna zaintzarako		
Bai	49	69,01%
Ez	6	8,45%
Ez dakit	2	2,82%
Batzuk	2	2,82%
Batzuk bai, besteak ez	4	5,63%
Beste erantzun bat	5	7,04%
Ez erantzuna	3	4,23%
Hurbileko pertsonen zaintza-beharrak		

Bai	36	50,70%
Ez	30	42,25%
Ez dakit	2	2,82%
Beste erantzun bat	2	2,82%
Ez erantzuna	1	1,41%
Norberaren zaintza- edo laguntza-beharrak		
Bai	11	15,49%
Ez	58	81,69%
Beste erantzun bat	1	1,41%
Ez erantzuna	1	1,41%
Udalak egungo zaintza-beharrei erantzuten diela		
Bai	8	11,27%
Ez	31	43,66%
Ez dakit	9	12,68%
Bai, baina baliabide gutxi dituzte	1	1,41%
Beste erantzun bat	19	26,76%
Ez erantzuna	3	4,23%
Udal-politikek pertsonen beharrak erdigunean jartzen dituzte		
Bai	14	19,72%
Ez	25	35,21%
Ez dakit	12	16,90%
Beste erantzun bat	17	23,94%
Ez erantzuna	3	4,23%
Beharrak ikuspegi publiko-komunitariotik lantzearen aldeko iritzia		
Bai	54	76,06%
Ez	3	4,23%
Ez dakit	5	7,04%
Beste erantzun bat	7	9,86%
Ez erantzuna	2	2,82%
Anoeta zaintza erdigunean jartzen duen herria dela		
Bai	35	49,30%
Ez	18	25,35%
Ez dakit	11	15,49%
Beste erantzun bat	0	0,00%
Ez erantzuna	7	9,86%
Herritarren sentsibilizazio maila (0–10)		
3 puntuko sentsibilizazioa	3	4,23%
4 puntuko sentsibilizazioa	4	5,63%
5 puntuko sentsibilizazioa	15	21,13%
6 puntuko sentsibilizazioa	17	23,94%
7 puntuko sentsibilizazioa	11	15,49%
8 puntuko sentsibilizazioa	7	9,86%
9 puntuko sentsibilizazioa	1	1,41%
10 puntuko sentsibilizazioa	3	4,23%
Ez erantzuna	10	14,08%
Zaintza sustatzen duten jarduerak ezagutzea		
Bai	32	45,07%
Ez	35	49,30%
Beste erantzun bat	2	2,82%
Ez erantzuna	2	2,82%
Jarduera horietan parte hartzea		
Bai	22	30,99%

Ez	47	66,20%
Beste erantzun bat	1	1,41%
Ez erantzuna	1	1,41%
Familiaz kanpoko zaintza-esperientzia		
Bai	37	52,11%
Ez	32	45,07%
Ez erantzuna	2	2,82%
Anoetan Zaintza Sarea behar dela uste izatea		
Bai	65	91,55%
Ez	3	4,23%
Ez dakit	1	1,41%
Ez erantzuna	2	2,82%
Zaintza Sarean parte hartzeko prest egotea		
Bai	49	69,01%
Ez	17	23,94%
Ez erantzuna	5	7,04%

IV. Eranskina

X. Taula. Galdetegiko erantzun irekien laburpen tematikoa

Gai nagusia	%	Jatorrizko erantzunak (laburpen gisa, hitzez hitz)
“Baiezkoa bada, zein?” – Anoetan zaintza sustatzen duten jarduera edo espazioak ezagutzea (n = 2)		
Zaintza sustatzen duten ekimen edo espazio zehatzak	100,00%	• “<i>Tipi-tapa.</i>” • “<i>Fachada de Hogar.</i>”
Galdera. “Horri buruzko iruzkin, iradokizun edo ekarpenen bat egin nahi al duzu?” (n = 15)		
Mugikortasuna eta azpiegitura egokiak	26,67%	• “<i>Pediatras fijos. Necesidad de mejor movilidad para sillas de ruedas (rebajar aceras). Mejorar en los espacios infantiles para el verano e invierno. Parques cubiertos, chorros de agua.</i>” • “<i>Espacios abiertos en parques de niños. Renovar y ampliar parque infantil.</i>” • “<i>Ver toda la gente que se queda sin salir de casa. Por miedo, soledad, cuestras, escaleras y baches (solo molestias para el viandante).</i>” • “<i>Herria handitzen doan neurrian, zerbitzuak gelditzen ari dira herrian; azkenaldian galtzen ari gara herri bezala.</i>”
Zaintza lan duinak eta eskubideak	20,00%	• “<i>Creo que lo más importante es saber las necesidades de cada uno... pueblo, a la sociedad, ayuntamiento... en hacer un trabajo digno.</i>” • “<i>Uste dut gizarte mailan lan handia dugula egiteko. Lan arloak ez du laguntzen eta egungo ereduak ez du errazten zaintza lanen bateragarritasuna, ea dela lana bera zaintzea, seme-alabekikoa, adineko gurasoekikoa edo bestelakoak...</i>” • “<i>Hay que tener en cuenta el poder adquisitivo de la familia. El reparto de la riqueza es fundamental.</i>”
Burokrazia gutxiago eta baliabide gehiago	20,00%	• “<i>Azkarrago ematea nahi dugu laguntza, burokraziari kontra eginez.</i>” • “<i>Gizartean pertsona helduen kopurua gorantz doa eta administrazio... daudenean tramite administratiboak denbora asko pasatzen dute.</i>” • “<i>Udalak galdetegia eta lanketa honekin azaltzen du bere prestutasuna eta borondatea. Herriak eta udalak baliabideak behar dituzte, eta ez dauzkate. Zaintza beharra non eta noiz hasten den... Diagnostikoa egin, herritarren benetako beharrak nortzuk diren jakin... Beharra duenarekin errespetuz adostu, beraien iritzia jaso, prestutasuna eta oniritzia bilatu. Herritarren sarea osatzean jakin beharko du zer nolako laguntza eskaini beharko duen. Borondatez eta elkartasunez egingo da lana, interesgarria eta beharrezkoa da, baina ezin zaio zaintza eremuari horrekin bakarrik erantzun. Honi guztiari aurre egiteko Aldundiak jarri beharko lituzke baliabideak: ekonomikoak, pertsonala... eta ez herrietara delegatu.</i>”
Herritarren parte-hartzea eta inplikazioa	13,33%	• “<i>Ahal dugun guztiok parte hartzea egokia litzateke norberak bere ahalmen eta eskaintzeko duen denborarekin.</i>” • “<i>Orain lotuegia nago prozesu komunitario batean sartzeko, baina etorkizun batean ez litzaidake inportako.</i>”
Zaintza udal politiketan erdigunean	6,67%	• “<i>Zaintza udal politiketan erdigunean jartzeko martxan jarri den dinamika edo erizpidea oso presente izan beharko litzatekeela. Eskerrik asko.</i>”
Ez du ekarpenik egiten	6,67%	• “<i>Ez.</i>”
Adinekoen beharrak eta belaunaldi arteko begirada	6,67%	• “<i>Beharrezkoa iruditzen zait gazteek eta umeek bezala, adinekoek ere beharrak dituztela ikustea.</i>”
Oharra: Taulan agertzen diren ehunekoak galdera bakoitza erantzun duten pertsonen gainean kalkulatu dira (ez lagin osoaren gainean). Jatorrizko erantzunak hitzez hitz jaso dira, parte-hartzaileen anonimatua gordez eta erabilitako hizkuntza eta estiloa errespetatuz.		